



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

POLITIKA ZIENTZIA ETA KUDEAKETA PUBLIKOA
2016-2017 IKASTURTEA

EAE-ko UDALEN BERDINTASUN POLITIKAK
2010-2015 URTEEN BITARTEAN

EGILEA: Maria Zendegi Zelaia
ZUZENDARIA: Ainhoa Novo Arbona

2017ko irailaren 1ean

"La autora del trabajo fin de grado declara que son ciertos los datos que figuran en este trabajo original y propio, asumiendo en caso contrario, las responsabilidades que pudieran derivarse de las inexactitudes que consten en el mismo: plagio, usos indebidos de imágenes, etc. Todas las imágenes son copyright de sus correspondientes propietarios y/o licenciatarios. Se incluyen en el presente trabajo bajo finalidad meramente divulgativa para ilustrar el marco teórico o análisis del trabajo".

Aurkibidea

1. HITZAURREA	3
2. HIPOTESIEN FORMULAZIOA.....	5
3. METODOLOGIA	6
4. MARKO TEORIKOA	9
4.1. GOBERNU ARTEKO HARREMANAK ETA GOBERNU LOKALAREN MENPEKOTASUNA.....	9
4.2. BERDINTASUN POLITIKEN IGOERA ETA MAILA LOKALAREN GARRANTZIA	13
4.3. EAEKO UDALEN EGOERA BERDINTASUN POLITIEKTAN	18
5. IKERKETAREN EMAITZAK.....	22
5.1 UDALEN AKTIBOTASUN MAILA.....	22
5.2 AKTIBOTASUNA ULERTU NAHIAN	31
6. IKERKTAREN ONDORIOAK	38
7. BIBLIOGRAFIA	39
8. TAULA, GRAFIKO ETA IRUDIEN AURKIBIDEA.....	41
9. OHARRAK	42
10. ERANSKINAK	43

1. HITZAURREA

Euskal administrazio lokaletan gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren bilaketan izandako politikak azaltzeko asmoa du lan honek. Ikerketa esploratzaile honen bitartez instituzio lokaletan genero ikuspegitik eman diren aurrera – pausuak aztertu nahi dira. Honela, udalek, 2010 eta 2015. urteen bitartean izan duten jarrera eta hartutako erabakien laburpen bat egin nahi da. Ikerketa maila lokalera mugatzen da, herritarrengandik gertuen dagoen instituzioak direlako udalak. Hori dela eta, herritarrengan eragin zuzena dute eta maila lokaletik beharrian errealak zeintzuk diren hobeto jakin daitezke. Behar hauetatik abiatuta berdintasun politikak hobeto diseinatu ahal izateko.

Honetarako, lan honen bitartez, EAEko udalerrietan berdintasun politiketan dagoen aktibotasun maila edo hobeto esanda udalek izan duten “*proaktibotasuna*” ikertzea nahi da. Kontzeptuak definitze aldera, berdintasun politika moduan ulertzen da, genero ikuspegia txertatzen duen politika oro. Ikerketa honetan, maila lokalean jorratzen diren politika publikoak aztertuko dira; beraz berdintasun politikaz mintzatzean, administrazio lokalean genero ikuspegiak sortutako *output* orori egiten da erreferentzia. *Berdintasun politiketan jarrera aktiboa* izatearen kontzeptuak esan nahiko du hala nola, berdintasun plan propioa jorratuta duen udala dela, baita Berdintasun Unitate eta Teknikaria duela egunero honetan jarduten dena eta Eudelek osatutako Berdintasunaren aldeko herrien erakundean (*Berdinsarean*) baita Europako Gutuna sinatu duten udalerrien artean dagoela.

Hau gauzatzeko, bi fase nagusietan antolatzen da ikerketa. Lehenengo fasean, ikerketa edo aztertuko dugun aldagai nagusia definituko da; ikerketa hain zuzen ere: Udal ezberdinen Genero Berdintasunerako Politiken Aktibotasuna. Hots, udaletxea aktibo den ala ez berdintasunari dagokionean **aldagai dependentea** izango da. Eta aldagai dependentea definituko duten faktoreak edo ezaugarriak ondorengo bostak dira: Berdintasun Plana (BP) izatea; Berdintasun Saila (BS) eta Berdintasunerako Teknikaria (BT) izatea; *Berdinsarean* (EUDEL) egotea; eta Europako Gutuna sinatua izatea. Honek esango digu berdintasun politikak aurrera eramateko ibilbidea egin duen ala ez udal bakoitzak, bere jarrera aktiboa edo pasiboa definitzeko.

Bigaren fasean, **aldagai independenteak** aztertuko dira. Alegia, zergatik izan den aktiboa edo ez aktiboa udalerria berdintasun politikak martxan jartzen. Honetarako arrazoiak aurkituko dira eta hauek azaltzen dituen faktoreak ere. Aldagai independenteak udalerriaren tamaina, alkatetzaren sexua, gobernuko alderdia eta azkenik Emakunde – Emakumearen Euskal Institutuaren (EEEI) diru laguntza jaso duen ala ez izango dira.

Ikerketa honetan aztertuko diren aldagaiak instituzionalak diren aldetik, aipatu beharra dago kapital sozial aktiboa berdintasun politiken inplementaziorako ezinbestekoa dela eta administrazio parekide batek ez duela ziurtatzen arrakastarako biderik, mugimendu feminista sendo batekin batera lan egiten ez badu.

Jarraitzeko, ikerketa honen helburu orokorrak eta zehatzak ondorengoak dira:

❖ Helburu orokorrak:

- Udal ezberdinen berdintasun politiken aktibotasun maila neurtu eta aktibotasun mailan eragina izan dezaketen faktore instituzionalak aztertu.

❖ Helburu zehatzak:

- EAEko 5.000 biztanletik gorako udalak, 2010- 2015 urteen buruan, genero berdintasuneko politika publikoak garatzen izan duten aktibotasuna edo pasibotasuna ikertu eta honen arrazoiak aurkitzen saiatu.
- EAEko Lurrealde Historikoen arteko konparazioa egin 5.000 biztanletik gorako udalak 2010-2015 urteen bitartean berdintasun politikan izan duten garapen ezberdinei buruz.
- Berdintasun politika hauek neurtzeko sortutako aldagai- instituzional hauek balizkoak diren ala ez egiaztatu.

2. HIPOTESIEN FORMULAZIOA

Hauek dira lan honen hipotesiak:

1. Udalerriaren tamainak ez du azaltzen aktibotasun maila
2. Toki Administrazioaren buruan dagoen alderdi politikoa ezkerrekoak edo eskuinekoa den ez du azaltzen aktibotasun maila.
3. Alkatearen sexuak ez du eragiten udal batek berdintasun politketan duen aktibotasunean.
4. Berdintasun politketan oso aktiboak diren toki administrazioak Emakunderen diru-laguntzak jaso dituzte.

3. METODOLOGIA

Berdintasunaren aldeko apustua udaletan ez da erraza neurtzen; instituzioetatik haratago egindako lanak ere eragina duelako. Politika publikoak gizartearen beharrak asebetetzeko dira, ondorioz, aurretiazko gizartearen inplikazio bat egon dela suposatzen da; esaterako herritarren beharrak manifestatzeko prozesu bat. Ondorioz, maila instituzionala eta soziala askotan nahastu egiten dira. Konplexutasun hau ulertuz, ikerketa honi hasiera emateko, irakurketa bibliografiko bat egin da. Honekin marko teorikoa garatu, eta hipotesiak eta lanaren helburuak finkatu dira.

Gaiari buruzko informazio eta ikerketa falta handia denez, zailtasun nagusia artikulu akademiko egokiak aurkitzea izan da. Ikerketaren atal honetan nabari izan da, oraindik udal mailako berdintasun politikei buruz gutxi asko idatzi dela, are eta urriago EAeko kasu espezifikoiari buruz. Ikerketa prozesuan zehar erreparatu denez, lan gehiago aurkitu daitezke berdintasun politikei buruz estatu mailan eta autonomikoan, lokalean baino.

Ikerketaren metodologiarekin jarraituz, irakurketa bibliografikoak, ikertzeko erabili diren tresna, hipotesi eta adierazle ezberdinen ezaguerarako balio izan du. Bestetik, irakurketa honen bitartez, aldagai independente eta aldagai dependenteak definitu dira, ikerketan zehar funtsezkoak izango direnak. Adierazle sistema hau diseinatzerakoan, beste ikerketa batzuetan erabilitako adierazle sistemak erreferentzia gisa hartu dira: Paula Otero eta Ramon Bouzasen ikerketak (“Estructura, recursos y desarrollo de las políticas de igualdad en el ámbito local”, 2012) edota Emanuela Lombardorena (“Políticas de igualdad de género en los Ayuntamientos de Barcelona: origen, características y retos para el futuro”, 2002). Lehenengoak, garrantzia ematen dio berdintasun politikak jorratzerakoan, diru laguntzei beharrari; bigarrenak, Bartzelonako udaletako berdintasun politikak aztertzeko hainbat tresna azaltzen ditu. Ondoren, baliabide pertsonaletara (informazio eskuragarria, kostu txikia eta interpretatzeko erraztasuna) eta ordezkagarritasunari moldatzen den adierazle sistema eratu da.

Landa lanari dagokionez, metodologia askotarikoak erabili dira, aldagai bakoitzaren beharren arabera. Lehendabizi, aldagai dependenteak izendatu behar izan dira, eta beste alde batetik aldagai independenteak. Aurretik esan bezala, aldagai dependenteek, udaletxea berdintasunari dagokionean aktiboa den ala ez azaltzeko asmoa dute; aldagai independenteek berriz, udala zergatik den aktiboa ala ez den aktiboa.

Aldagai dependenteak ondorengoak izan dira: Berdintasun Teknikaria (BT) dagoen ala ez; udalerriak Berdintasun Plana (BP) duen ala ez; Berdintasun Saila (BS) edo berdintasunari buruzko azpi- unitaterik duen ala ez; *Berdintasun* kide izatea; eta azkenik Europako Gutuna sinatua izatea. Aldagai bakoitzaren datuak lortzeko, metodologia ezberdinak erabili ditut eta guztiak aldagai kualitatiboak dira.

Lehenik eta behin, BT, BP eta BS duten edo ez ikertzeko, udalen web orrialde zein dei telefonikoen bitartez osatu da informazioa. Aldagai hauen ahulezia, aurrerago azalduko den moduan, informazio falta da; izan ere BT egote hutsak ez du baieztatzen bere lana ondo betetzeko baliabide nahiko duenik, edota bere lanaldia nolakoa den. Hala eta guztiz ere, aldagai hauek ikuspegi global bat ematen digute egoerari buruz.

Bigarrenik, zerrendatutako udalak *Berdinsareko* kide diren ala ez ikusteko Eudelen web orrialdeko² mapan aurkitu da informazioa, bertan zein udalerrik parte hartzen duen azaltzen da. EAE mailan tokiko gobernuak kudeatzeko erakunde garrantzitsua da EUDEL eta informazioa publikoa denez ez du bestelako zailtasunik.

Hirugarrenik, Europako Gutuna sinatu duten EAeko udalerrien zerrenda (ikus 1.eranskina) “European charter for equality of women and men in local life” txostenean zehazten da.. Txostena publikoa denez ez du bestelako zailtasunik izan. Espainiako udalerrien zerrendatik EAeko udalerrien zerrenda propioa osatu eta ondoren 7/8/9.tauletan txertatu da, “x” batekin markatuz Udalerriak Gutuna sinatu duen kasuetan.

Aldagai independenteei dagokionez, ondorengoak dira: udalak Emakunderen diru-laguntzarik jaso duen ala ez; udalerraren tamaina; alkateen sexua; eta gobernuan egon den alderdi politikoa. Hauek guztiak ere 2000-2015.urteen artean.

Udalerrien tamaina aztertzeko, Euskal Estatistika Erakundearen (Eustat) biztanleria datu basea erabili da. Bertan lurralde historiko bakoitzaren udalerriz zerrenda biztanleria datuekin atara eta, hortik, *excellean* lurralde historiko bakoitzean, 5.000 biztanletik gorako udalerrien zerrenda osatu da. Ondoren, “Ley reguladora de bases del Regimen Local” legearen arabera, aukeratutako biztanleria tarteekin (5.001-20.000 eta 20.001tik gora) bi talde osatu dira, lehenengoari “E” eta bigarrenari “H” izenpetuz. Ondoren, 7/8/9.tauletan udalerriz- udalerriz beraien biztanleriaren arabera honela sailkatuz.

Bigarrenik, 2003, 2007 eta 2011ko udal hauteskundeetako emaitzak aztertu eta alderdi politikoa eta alkatetzako sexua aurkitu da. Honetarako, hauteskunderen emaitzak⁵ begiratu eta taulan barnebidu dira datu guztiak. Emakundek⁶ urtero EAeko emakume eta gizonei buruzko zifrak publikatzen ditu, bertan zerrendatu egiten du alkatetzan zein udalerritan egon diren emakumezkoak. Bestetik, datuak falta izan direnetan, dei telefonikoz osatu da informazioa.

Azkenik, Emakundek- Emakumearen Euskal Institutuak, urtero egiten dituen memoriak aztertu dira 2000 eta 2015 urteen bitartean. Datu bilketa hau antolatzeke udal bakoitzak epealdi honetan zenbat aldiz jaso edo eskatu duen diru – laguntza zehazten duen taula (ikus 5.taula) osatu da. Azkenik, 7/8/9.tauletan zenbaki batekin azaltzen da zenbat aldiz jaso den diru laguntza. Atal honetan egon den arazo nagusia, 2000; 2001; 2002 eta 2007ko urteetan banatu ziren diru laguntzak memoriatan agertzen ez zirela izan da. Arazo honi aurre eginez, gutun bat (ikus 4.eranskina) idatzi zen EEEIri informazioa eskatuz, hauek datu guztiak erraztu zituztelarik.

Ikerketa honetan ondorioz, ikerketa primarioa eta ikerketa sekundarioaren arteko teknikak nahasten dira. Beste ikerlariak erdietsitako datuen analisiak aparte, lortutako datuak ere aztertzen dituelako. Iturri ez zuzenen azterketa bat egin da, artxibategi publikoetan dauden materialak eta dokumentu ofizialak erabili direlako.

Bukatzeko, lagina eta unibertsoa berberak dira eta ondorengoak osatzen dute:

- ❖ EAeko 5.000 biztanle baino gehiago dituen udalerritan aztertuko dira, nahiz eta 4/2005eko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legeak 3.000 biztanleko udalerririk

ezartzen dituen. Autonomia faltagatik beste antolamendu bat dutelako udalerrri txikiek eta ikerketa desorekatu dezakeelako.

- ❖ EAEko 5.000 biztanletik gorako udalerrriak, hain zuzen ere: 71 udalerrrik. Horietatik 33 Bizkaian, 4 Araban eta 34 Gipuzkoan.

Landa – lan hau, 2017ko maiatzaren 10a eta uztailaren 27a bitartean osatu da.

4. MARKO TEORIKOA

Marko teorikoak hiru zutabe nagusi izango ditu. Lehenengo azpi atalean gobernu arteko harremanak eta gobernu lokalen menpekotasuna aztertuko da. Bigarren blokearekin jarraituz, berdintasun politiken jauzia orokorki azalduko da. Politika publiko hauek izan duten joera ezberdinak baita administrazio ezberdinek izan duten erantzunak ere. Gainera, *mainstreamingaren* estrategia azpimarratzen da eta, udalek eta orokorrean maila lokalak izan duen garapena arlo honetan. Azkenik, hirugarren blokean EAEko kasuari buruzko datu zehatzak aztertuko dira.

4.1. GOBERNU ARTEKO HARREMANAK ETA GOBERNU LOKALAREN MENPEKOTASUNA

Marko teorikoarekin hasteko, administrazio lokalaren menpekotasunari buruzko irakurketa bibliografikoa egin da. Sergio Pérezek (2014) azaltzen duenez, azken urteotan gobernu lokalak bere lanaren eta kompetentzien igoera nabarmena izan du eta honenbestez eskaera geroz eta handiagoi egin behar dio aurre; gai batzuek askotan, legalki beste gobernu maila batzuei dagokien arren. Honek suposatuko du udalek duten aurrekontu urriak oraindik eta gehiago estutu behar izatea. Arazo honi aurre egiteko, udal askok beste baliabide batzuk aurkitzen dituzte finantzatzeko, baita zorpetzera jo ere, geroz eta maizago.

Gobernu lokalak aztertzerakoan, Pérezek (2014) azaltzen du udalak Eusko Jaurlaritzaren agindupean daudela Estatutuen 10.4 artikuluari jarraiki; eta hauen ardura ekonomikoa Foru Aldundiek dutela. Gaitasunei eta aukerei erreparatzen badiogu Pérezek (2014) dio herritarrengatik gertuen dagoen administrazioa den arren, maila lokala desabantaila gehien dituen dela, administrazio autonomiekin, probintziekin eta gainerakoekin erkatuz gero.

“Autore askoren aburuz, Anderson da Harreman Intergubernamentalaren definitzaile nagusia” (Pérez, 2014:255). *“Wright (1990) eta Agranoffek (1997) bost ezaugarri nagusi daudela kontsideratzen dute Harreman Intergubernametaletan (...)”* [itzulita]¹ (Pérez, 2014:256). Lehenengo ezaugarria, maila askotariko instituzioen parte- hartzea da; bigarrenik, instituzio eta gobernu guztien atzean pertsonak eta giza baliabideen eskutik emandako kudeaketa baloratzea; hirugarren, etengabeko hartu- emanak prozesu guztian zehar; laugarren ezaugarriari dagokionez, edozein langilek izan behar du prozesu parte- hartzailearen aktore; eta amaitzeko, bosgarren ezaugarria Harreman Intergubernamentalaren dimentsio ekonomikoa litzake, hau da, interesen nukleoaren barruan, aspektu ekonomikoak garrantzi nabarmena dauka politika publikoetan ere. (Pérez, 2014).

Hau ulerturik, Martinez eta Novok (2002; in Agranoff, 1997:132) Agranoffen testutik ondorioztatzen dute gobernu arteko harremanak aurrekontu eta sistema fiskalaren arabera izango dela. Gisa berean, March eta Olsenek (1984; in Martinez eta Novo, 2002:454) diote gobernu arteko harremanen ezaugarri direla administrazio edo egitura azpi- estatalak: esaterako gobernu lokalak. Gainera, maila lokalean egon diren aldaketa nagusietako bat gobernu kanpoko erakundeen hazkundera iizan dela azpimarratzen dute autoreek.

Ildo honetatik, Harreman *intergubernamental*en ikerketek diote berdintasun politikek duten ezaugarri azpimarragarriena gobernu mailen arteko funtzio- banaketa eza dela (Martinez eta Novo, 2002). Gauzak honela, maila administratibo bakoitzak ez dauka ondo zehaztuta bere funtzioa edo eginbeharra berdintasunari dagokionean. Honen ondorioetako bat programa eta akzio ezberdinen arteko kohesio eza da. (Martinez eta Novo, 2002). Martinez eta Novo (2002) gizartea, enpresa eta GKE ezberdinen igoera nabarmentzen dute genero berdintasunerako lanean: “*Berdintasun politiken gestio intergubernamentalak gestio publiko berriaren zentzua hartu du, hainbat jarduera elkarte sozialek kudeatzen dutenez gero*”. (Martinez eta Novo, 2002:472).

Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako politikak, elkargune handienetako bat dira testuinguru *intergubernamentalean*, beren rola maila ezberdinetan banatzen direlarik (Martinez eta Novo, 2002). Halere, ez da politika sektorial bat, bi autore hauek dioten bezala; baizik eta zeharkako politika publiko bat gai ezberdinetan jorratu beharrekoa, aurrerago ikusiko dugun moduan. Hala eta guztiz ere, bi autore hauek baieztatzen dutenez agenda politikoan ez du harrera oso zabala izan berdintasun politikek eta beraz politika publiko hauen arrakasta erlatiboa dela azaltzen dute. Halere, berdintasun sail, departamentu edo unitateen garrantzia azpimarratzen dute eta hauek duten indarrak ikergai interesgarria egiten dutela. (Martinez eta Novo, 2002).

Martinez eta Novoren (2002) arabera, Eusko Jaurlaritzaren berdintasunerako subentzioak gehienbat emakume elkarteentzat, programentzat eta berdintasunerako proiektuentzat izaten da. Emakundek, esaterako, 2001ean bere gastuaren %10a honelako laguntzei zuzendu zien. Hala ere, lana egin da Foru Aldundiak eta Jaurlaritzak udalen berdintasun politiken diru- laguntza koordinatzeko, eta besteak- beste, udalen tamaina erabili da banaketaren irizpide gisa.

Euskal Autonomia Erkidegoaren egituraketarekin jarraituz, Pérezek (2014) erkatzen du: “*Analizatu beharreko lehen pausua, EAEko egitura William Rikerren (1964) eredu federalaren deskripzioarekin zehatz- mehatz bat datorrela da*” (Pérez, 2014: 259). Izan ere, Estatu bat federala izateko beharrezko diren hiru ezaugarriak betetzen ditu autorearen ustez. Hasteko, gobernu arteko hierarkia bat dago lurralde eremu eta biztanleria berebean (gobernu autonomikoa, forala edo diputazioena eta gobernu lokala). Bigarren ezaugarriak dio gobernu bakoitza autonomoa dela eta horrela da EAEko kasuan ere, autoritate politikoa duelako bakoitzak. Azkenik, gobernu maila bakoitzak bere organo demokratikoak ditu, herritarrengatik aukeratuak, eta honek independentzia ematen dio beste organoekiko baita legitimitatea ere. (Pérez, 2014).

EAEko kasuan partikularki, Foru Aldundiek maila lokalaren beste azpimultzo bat osatzen dute. Gainera, arlo ekonomikoan independenteenak eta protagonista dira (Perez, 2014). 27/1983ko Lurralde Historikoen Legeak finkatzen du udalak Foru Aldundien babespean daudela ekonomikoki eta hauek gobernu lokalen baliabide falta ezaz arduratu beharko direla (Pérez, 2014).

Harreman intergubernamentalak berdintasun politiken analisisian aplikatzeak, politika publiko honen inplementazioaren aspektu *multinibela* edo maila anitzekoa ulertzen laguntzen digu. “*Agranoffen (1997) proposamenetik abiatuz hiru tresnek azaltzen dute berdintasun politikan Harreman Intergubernamentalak: harreman fiskalak (HF), erregulazio intergubernamentalak eta egitura azpi- estatalak*” (Novo eta Martinez, 2002:459). Harreman

Fiskalei dagokionez, gastu publikoaren deszentralizazioak definituko du maila instituzional bakoitzaren boterea. Adibide bezala jartzen dute bi autore hauek 2001ean Estatuak Genero berdintasunerako aurrekontuan %17a zuela eta autonomia erkidegoek %82,5a. Argi dago beraz politika publiko honetan pisu gehiago dutela erkidegoek Estatu Zentralak baino. Halere, berdintasunera zuzentzen den politika oro ez da soilik berdintasun sailetik ematen, baizik eta kultura edota gizarte ekintzatik ere egin daiteke. Ondorioz hau ezin da neurtu datu honekin soilik. (Martinez eta Novo, 2002).

Gobernu arteko jurisprudentziari dagokionez, Konstituzioak ezta autonomia estatutu gehienek ere ez dute berdintasunari buruzko aipamenik egiten. Halere, Espainiar Estatuan, lau estatutuk bai egiten dute: Kataluniakok (9.27art.), Valentziakoak (31.26.art.), EAEkoak (10.39.art.) eta Nafarroakoak (44.18.art.). (Martinez eta Novo, 2002). Aitzitik, aipatu beharra dago “*marko juridiko honek ez duela bermatu berdintasunaren aldeko prozesua martxan jartzea autonomien hasieratik*”. (Martinez eta Novo, 2002: 465)

Jarraitzeko, menpekotasun ekonomikoaren ildotik, Novo eta Martinezek (2002) azaltzen dute, herri- administrazioek azken urteetan beren gastua eta jarduera nabarmen garatu dituztela. Autoreek gehitzen dute, denboran zehar zerbitzu publiko hauek Estatuko zein Europako eskabidetara moldatu behar izan direla. Europako Gutunak, honenbestez, “*udalerrien autonomia politiko eta administratibo osoa*” onartzen dio (Eudel, 2008:1; in Pérez 2014: 271). Dena dela, aurretik esan bezala, udal batzuek prekarizazio egoera bat jasan dute, legalki beraiei ez dagokien zerbitzuak eman behar izan dutelako (Suárez 2008: 32; in Pérez, 2014: 272). Honen adibide dira babes eta segurtasun sozialerako zerbitzuak edota gizarte laguntzarako bestelako zerbitzuak. Pérezek (2014) dio honek guztiak udalen gastua handitu duela baina sarrerak ordea ez direla maila berean hazi. Bestalde, aipatzen du udalen finantza- iturri nagusiak diru- sarrera propioak direla. Azken hauek zerga zuzenak, ez zuzenak eta udalerriko zerbitzu publikoen gaineko tasek osatzen dute. Bigarrenik, propioak ez diren diru sarreraz ere baliatzen dira udalak; nagusiki beste maila instituzional batzuetako transferentziak.

Perezek (2014) arabera “*udalen dependentzia finantzarioa sei punturen arabera da*” (Agranoff, 197:132; in Pérez 2014:258): gobernu arteko harreman fiskalak, laguntza finantzarioak eta programen subentzioak, gobernu arteko erregulazioak, nazio gaineko egiturak, indar politikoak eta azkenik gobernuen ekintzak. Garrantzitsuak dira beraz, dependentzia fiskal hau aztertzerakoan, gobernu mailen arteko diru laguntza eta transferentziak aztertzea, baita hauen zentzu politikoa ere.

Udalerrien sarrerekin jarraituz, Pérezek (2014) azpimarratzen du udalek jasotako transferentziak beste instituzioetatik, batez beste diru- sarreren %40a direla. Honek esan nahi du udalak beste administrazioen pean dagoela ekonomikoki behintzat, eta ez dutela nahiko luketen autonomia ekonomikoa ekintza ezberdinak aurrera eramateko. Estatu mailari dagokionez, gobernu zentrala da transferentzia hauen lehen igorlea; baina EAEko kasuan, Foru Aldundiek hartzen dute lehen postua. (Pérez, 2014). Autore honek gehitzen du, 2012an Bizkaiko udalerriak izan direla menpekoenak Bizkaiko Foru Aldundiaren transferentzietan.

Tokiko administrazioaren menpekotasunarekin amaitzeko, 1.taulan ikusi daitekeen bezala, EAEko udaletan transferentzietan izan dute pisu gehiena 2009 eta 2012.urteetan. Pérezek (2014) batutako datu hauetan ikuskatzen denez, EAEko udalen diru sarreren %51,37a beste gobernu maila batzuetatik egindako transferentziak izan ziren 2009 eta 2012.urteen bitartean. Bigarrenik,

diru sarrera propioek (%46,12) ere pisu nahiko izan zuten. Datu hauekin, argi geratzen da udalek duten menpekotasun ekonomikoa beren aurrekontuaren erdia dela gutxi- gora behera.

1.taula: EAEko administrazio lokalen diru- sarrerak (2009tik 2012ra)

SARRERA MOTA	2009	2012
Zergak	% 15,53	% 19,58
Tasak	% 14,64	% 18,13
Zorra	% 7,22	% 2,46
Besteak	% 9,75	% 6,12
Diru sarrera propioak guztira	% 46,34	% 46,12
Partizipazioak	% 3,02	% 2,35
Estatuko Zergak		
Transferentziak	% 48,85	% 51,37

Iturria: lanketa propioa Pérezen (2014:205) datuekin

Azkenik, garrantzitsua da ulertzea nondik datozen aipatutako transferentzia hauek. Oro har, 2012ko datuen arabera, Foru Aldundiek transferentzien %98,5ko ekarpena egin zuten. Honek esan nahi du Eusko Jaurlaritzaren transferentziak urte hartan soilik %1,5ekoak izan zirela. (Pérez, 2014).

4.2. BERDINTASUN POLITIKEN IGOERA ETA MAILA LOKALAREN GARRANTZIA

Bigarren atal honetan, esan bezala, berdintasun politikek maila orokor batean izan duten *booma* aztertuko da. Ondoren EAEko egoera zehatzago landuko da eta azkenik, *mainstreaming* edo “*zeharkakotasun estrategia*” zertan datzan eta tresna berritzaile honek izan duen eraginaz mintzatzen da.

Alonsok (2010) azpimarratzen du gobernu maila guztien inplikazioa ezinbestekoa dela berdintasunean lan egiteko. Alegia, gobernu zentrala zein autonomikoa, baita lokala ere beharrezkoak direla berdintasunari administrazioetatik ekiteko. Berdintasun politikak aztertzerakoan, maila administratibo baita lurralde-maila desberdinen arteko dependentziak aztertzea ezinbestekoa da, aurretik azaldu den moduan. Ikuspuntu hau gobernu arteko harremanetatik aztertu beharra dago Alonsoren (2010) arabera, hain zuzen ere, gobernu unitate ezberdinen arteko harreman eta interakzioak maila guzietan aztertu behar dira.

Ikuspegi *multinibel* batetik, erkidegoek berdintasun esparruan eragiteko nahiko indar dute eta EAEko foru-eredua konplexua dela eta, autonomia ekonomiko altua du. (Novo, Silvestre eta Elizondo, 2013; in Alfama eta Alonso, 2015). Gainera, autonomia erkidego batzuen “*autogobernu mailak*”, baita kompetentzia gehiago eskuratzeko nahiak ere, transformazioa eragin du. Berdintasun politikak transformazio honen araberako garapena izan dute eta denboraren poderioz eredu *multinibel* edo maila anitzekoa hartu dute nabarmenki. EAEko kasuan, oro har deszentralizazio maila altuko politikak eraman dira aurrera berdintasunari dagokionean. (Alonso, 2010).

1983an Espainiako Gobernu Zentralaren lehenengo Emakumearen Institutua sortzen da. Jarraian Andaluzian eta EAEn ere 1988an, Emakunde- Emakumearen Euskal Institutua (Alonso, 2014). Emakundek, esan bezala EAEko hainbat instituzioek sortutako politika publikoek berdintasuna sustatzen duten ala ez ebaluatzen du. Gainera, instituzio honek izan duen “*lotura lehendakartzari, egoera hierarkikoki positiboa eman dio, hainbat gobernu sailetan eragina izateko*”. (Alonso, 2015:171).

Gobernu lokalak, 1985eko legearekin bat kompetentziak lortu zituen genero berdintasunean, baita gizarte zerbitzuak hornitzeko ere. Alonsok (2012) gehitzen du, gaur egunera arte dekretatutako berdintasun lege guztiek dutela aipamen berezia udalen parte hartze derrigorrezkoari buruz. Kasu euskalduna azpimarratzen du Alonsok (2012) behin eta berriz bere lanetan. 1991etik garrantzia berezia eman zaiolako Berdintasunaren aldeko apustua eman duten instituzio-sare guztiari: udalak, Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritza (Emakunde) ... Menpekotasun mapa global honetan, ulertu beharra dago udalak non kokatzen diren. EEEIk prozesu honetan aholkuari, bultzatzaile eta ebaluatzaile lanak egiten ditu Diputazioetan, Eusko Jaurlaritzan eta Udaletan.

Hariaekin jarraituz, Alba Alonsok (2010) Espainian berdintasun politikek, azken hogeitun urteetan izan duten olatua azpimarratzen du. Garapen baikor honen adibide dira, lege berrien eratzea (zeinetan EAEko 4/2005eko Berdintasun Legeak garrantzi aipagarria duen); indarkeria matxistaren aurkako protokolo ugariak mankomunitateetan; geroz eta udal gehiagok dutela Berdintasun Planak onartuta, hauentzat ebaluazio planak, baita Emakume eta Gizonen

berdintasunerako unitateak eta abar luze bat ere. (Alonso, 2010). Orokorki, genero politikek, 90eko hamarkadaz geroztik, aurrerapen izugarria jasan dute administrazio maila guztietan; politika publiko mota hauek, administrazio publikoaren funtzionamenduan esparru guztien inplikazioa eskatzen dutelarik. (Alonso, 2010). Emakume eta gizonen berdintasunaren alorreko politika publiko guztiak, gobernu maila eta esparru anitzetatik garatu direla baieztatzen du autore honek, maila *multinibel* batean. Honek lotura zuzena du aurretik aipatu den HIn ikuspegiarekin. Alonsok (2010) aipatzen du gehienbat biolentzia matxista izan dela udalerrietan jorratu den gaia, banakako arreta pertsonalizuatuagoak eskaini direlako arazo honi dagokionean.

Arkitektura instituzional honetan, Udalak herritarrekin harreman zuzena duten erakundeak direla ulertuta, hauek berdintasunarekiko duten esku hartzea aztertzea ezinbestekoa da. Espainiako deszentralizazio mailagatik, erkidegoek Gobernu Zentralari berdintasun politiketan aurre hartu diote, eta berritzaileak izan dira jurisprudentzia genero ikuspegitik eratzen eta birmoldatzen. (Alonso, 2010). Gainera, azpimarratu beharra dago autore honen esanetan, Estatuak izan duen konpetentzia- galtzea, beste gobernu mailekiko.

Alfama eta Alonsoren (2015) arabera, EAEko berdintasun politikak aitzindari izateagatik gailentzen dira Espainian; oro har, beren anbizio eta ibilbide luzeagatik. Alonsok (2010) gehitzen du: “*Kasu euskaldunak arreta berezia behar du, maila lokalarekin izandako kolaborazioa urte asko diharduelako jada*”. (Alonso, 2010:63). Gainera, diote berdintasun politika euskaldunek, formalizazio gehiago izan dutela; zehatzagoak izan direlako administrazio parekideago bat lantzeko aldaketarako pausuak zehazterakoan. 1991tik, EAEn plan espezifikoak aurrera eraman dira beste erkidegoetan ez bezala; plan hauek jarraipena izan dutelarik denboran zehar. XX.mendeko 80ko hamarkadatik, feminismoaren bigarren olatuan hain zuzen, ekintza positiborako politikak martxan jartzen hasi ziren. Honela, genero berdintasunerako politikak, tresna ugariaren sorkuntzaz garatzen hasten dira. Gehienbat Berdintasun Planak bultzatzen hasi ziren baita Emakumeen Etxeak eratzen (Alfama eta Alonso, 2010). EAEn, Andaluzian eta Katalunian, Berdintasun Planekin bat, gehienbat ebaluazio txostenak egin dira. (Alfama eta Alonso, 2010). Ebaluazio txostenenekin Plan berriak errealitatera gehiago moldatuko dira. Ildo beretik, Alonso eta Alfamak (2015) azpimarratzen dute:

“Etengabeko berdintasun planak ebaluatuak izan behar dute (...). EAEko, Andaluziako eta Kataluniako bultzada zentzu honetan oso nabarmena izan da. Jarraipen zehatz eta sistematikoak egin dituzte eta administrazioarako jakintza asko garatu da genero berdintasunean”. (Alonso eta Alfama, 2015: 32-33)

Alonsok (2010) aipatzen du desberdintasunei buruzko ezagutzak adierara emateko tresnak eman behar dituela berdintasun planek. Honetarako garrantzia izango dute berdintasun unitateek, Alonsoren (2010) arabera hauek espezializaturik baitaude gaitasunak eta ezagutza zabaltzen *mainstreaming* estratejiaren bitartez administrazioan zehar. Gainera, emakumeen boteretzearan lan egin behar dute berdintasun teknikari eta unitate hauek. Garrantzitsua litzake baita ere aurrekontuak aipatzea. Andaluzia eta EAEko berdintasun planak izan dira genero ikuspegitik aurrekontuak egiteko pausuak ezarri dituzten bakarrak estatistika desagregatuen bitartez. (Alonso, 2010).

Amaitzeko, erabaki politikoak ez ezik, mugimendu feminista ere maila gertuago batean ikertu da instituzioz kanpoko aktore bezala. Genero desberdintasuna estrukturala, erresistente

eta *multidimentsionala* den heinean, interbentzio publikoa nahikoa ez delako izango (Alonso, 2010).

→ “*Mainstreaming*” estrategia

1995ean Beijingen ospatu zen Nazio Batuen Munduko Emakumeen IV.Konferentzian, *mainstreaming*-a aipatu zen berdintasunerako estrategia gisa (Alonso eta Alfama, 2015). Bi autore hauek estrategia berritzailea honela definitzen dute: Genero *mainstreaming*aren estrategia, Alonso eta Alfamaren (2015) arabera, politika publikoek genero ikuspegi bat dutela onartzean abiatzen da. Honek, emakume eta gizonen artean desberdintasunak erreproduzitzen dituelarik.

Alonsok (2010) dioten bezala, genero politikak estrukturalagoa den ikuspegi batetik garatu dira azken urteotan. Sexuagatiko diskriminazioa estrukturala delako eta ondorioz eremu eta esparru guztietan dagoelako, baita ere administrazio publikoen funtzionamenduan. (Alonso, 2010). Estrukturalismo honek zeharkakotasunera eramango digu; hau da, arkitektura instituzional zein gizarte guztian zeharkako aldagaiak osatzen dituzte generoagatik diskriminazioa, eta honekiko erantzunak egitura berbera izan beharra dauka. Hau da baita ere, *mainstreaming* bezala ezagutzen den estrategia hain zuzen ere. (Alonso, 2010)

Hitz gutxitan esanda, *mainstreaming*-a politika publiko oro genero ikuspegiak aztertu eta birmoldatzea izango litzateke, ulertuz ekintza politiko guztiek dutela generoan inpaktua (zuzenekoa ala zeharkakoa). (Alonso eta Alfama, 2015). Esaterako, udal mailan, BP ugaritan agertzen den bezalaxe, kirol arloa genero ikuspegitik aztertu daiteke edota beste kasu batzuetan, aurrekontuak berdintasunari erreparatuz egin. Interbentzio publikoaren diseinua, inplementazioa eta ebaluazioa maila administratibo guztietan berraztertu beharra dago, guztien beharrak asetzeko eta jarrera sexistak errefusatzeko.

*Mainstreaming*a edo zeharkakotasun estrategia, sistematikoki administrazio publikoaren esparru guztietan txertatzeko, hainbat tresna ezberdin diseinatu dira denboran zehar (ikusi 2.taula). 1995ean, EAEko gobernuak III.Akzio positiborako Planean egin zuen lehen aipamena edo gerturapena *mainstreaming* strategiari, Alonsok (2015) dioenez. Bertan, azaltzen zen lez, “zeharkakotasunak emakume eta gizonen aukera berdintasunerako printzipioan errealitatea izan behar du administrazio publiko euskaldun osoan eta programa guztiak zeharkatu behar ditu”. (Emakunde, 1995 in Alonso, 2014:95). Geroztik, beste erkidegoek jarraitu dute norabide hau. Plan honen haritik, 1999an, Eusko Jaurlaritzak *mainstreaming*-a erabiliz, “gender budgeting” egiteko programa pilotu bat martxan jarri zuen. Aurrekontuan genero ikuspegiak gauzatzeko lehen autonomia erkidegoa izan zelarik. (Alonso, 2015). Amaitzeko, Alonsok (2015) azpimarratzen du: “EAE izan da lehen autonomia *mainstreaming*a bereganatzen estrategia gisa, eta berdintasun legedi bat sortzen ere, hau martxan jartzeko hainbat tresna garatuz (...) hau dudarik gabe arestian egin diren arauen erreferentzia izan delarik”. (Alonso, 2015: 131).

2.taula: *Mainstreaming*a garatzeko tresnen laburpena

GENERO MAINSTREAMINGA GARATZEKO TRESNEN LABURPENA		
TRESNA MOTA	HELBURUAK	ADIBIDEAK
Legegintzaldia ren hasiera eta planifikazioa	Zeharkakotasunarekin konpromisoa	Legeak, programak, planak ...
Antolaketa instituzionala	Zeharkakotasuna antolatzeko egiturak eraiki	Genero unitateak, departamentu ezberdinen arteko komisioak ...
Ezagutza	Errealitatea osorik ezagutu	Behatokiak, generoaren araberako estatistikak, formazioa, gidak ...
Prozesu politikoa	Genero ikuspegia politiken garapenean txertatu	Genero Inpaktuaren txostenak eta aurrekontuak, subentzioak, konbenioak, berdintasun planak ...
Parte-hartzea	Mugimendu feminista eta sozialak bultzatu parte hartzera	Prozesu parte-hartzaileetarako aholkularitza, galdeketak ...
Jarraipena, <i>accountability</i>-a, ebaluazioa	Herritarreri <i>accountability</i>	Ebaluazioak, informaziorako sistemak ...

Iturria: Alfama eta Alonso, 2010: 27 [itzulpena nirea da]

Alfama eta Alonsok (2015) azpimarratzen dute *mainstreaming*a aplikatzeko lehen pausua planak, legeak eta programak onartzea dela. 2.taulan ikusten denez, hainbat tresna daude *mainstreaming* estrategia martxan jartzeko. Hauen ustez, honek islatzen duelako zein den administrazioaren borondate politikoa. Honek esan nahi du, erakundeen borondatea, plan, lege eta programa ezberdinetan ikuskatzen dela. Goiko taulan ikusten denez, BP zehaztapen bat egin daiteke zeharkakotasuna nola ezarriko den azalduz. Honela, berdintasun unitateak, komisio eta lan-talde ezberdinekin jarraipen lana egingo dute eta dinamika ugari sortuko dira honen haritik. Alfama eta Alonsok (2015) baieztatzen dute prozesu hauek aldatzeko, politika estrategikoagoak eta horizontalagoak egin behar direla eta administrazioa bera interbentziorako tresna gisa ulertu beharra dagoela.

4/2005eko EAEko Legeak “*botere publiko orok bere egitura administratiboetan berdintasunarekiko orientazioa txertatzera bideratu du; politika propioak sortuz eta behar eta lehentasun espezifikoei erantzunez*” (Alfama eta Alonso, 2015: orr). Horrela, Berdintasun estrategiak (planak, akzio positiboak ...) derrigorrezko betebeharra izango dira udalentsat ere eta horrela ez izatekotan, bestelako praktika eraginkorrak egin beharko dute. (Alfama eta Alonso, 2015). Hauek guztiak betetzeko ordea, baliabide material, ekonomiko eta pertsonalak beharko dira. Eta horretarako ezinbestekoa izango da Udalen kasuari dagokionez diru laguntzak

izatea. Udalen baliabide falta honen aurrean, Emakundek udalerrien beharren arabera diru-laguntzak banatzen ditu. Diru laguntza hauek, gehienbat, Berdintasun Planak sortzeko izan dira: egoeraren diagnosia, diagnosiaren ebaluazioa, honen arabera plana diseinatu eta martxan jartzeko. (Alfama eta Alonso, 2015).

2000 eta 2002.urteen buruan, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua berdintasunari %193 handitu zen eta Emakunderenak ondorioz %297eko igoera izan zuen. Maila lokalari dagokionean, 2005ean BP zuten udalen %10ak zuen 100.000€ko aurrekontua hauek aplikatzeko. Beste alde batetik, 2010ean unitate lokalen %37ak zuen berdintasun departamentua (2005ean ordea %16ak soilik). Izan ere, 2005az aurretik udalen %15ak soilik zuen BP. 2015ean %42 arte handitu da ehunekoa ia biztanleriaren %90a hartuz. (Alonso, 2010).

Bestetik, Eusko Jaurlaritzari dagokionez, 2012an genero berdintasuna, aurrekontu orokorren %0,19a zen; hortik berdintasuna bultzatzeko %58a, bigarrenik berdintasunerako langileentzat %23a eta azkenik %19a azpiegitura finkoetarako. 2013ko datuek diote 2012an 147 pertsona zeudela berdintasunerako lanpostuetan. Hala ere, aipatu beharra dago lanpostu hauetan prekaritate indizeak ere aztertu izan direla. (Emakunde, 2013; in Alfama eta Alonso 2010:35).

Administrazio Publikoetan *mainstreamingaren* bidez berdintasun politikak txertatzearen emaitza positibo gisa hainbat adibide daude Alonsoren (2010) arabera. Esaterako aurretik aipatutako Generoaren Araberako Aurrekontuak (1999an EAEn egindako programa pilotua); estatistika eta datu bilketa burokratikoetan sexu aldagaia ezarri eta honen ondorioz ezagutza hobetzea (Martxoaren 22ko 3/2000 Gizon eta Emakumeen berdintasunerako Lege Organikoaren 20.artikuluaren arabera) edota Genero Inpaktuaren Ebaluaziorako tresna behin betikotzea. Arau eta legeek berdintasunean eragin negatiboa izan ezker, neutralizatzeko neurriak ezarri ziren. Horrelako informea lehendabizikoz Katalunian egin zen 2001ean:

“Katalunia izan da lehen eredu. Honek 2001az geroztik genero inpaktuaren txostenak plazaratu ditu. Lehena izan da ezartzen, lege proposamenek eta xedapen orokorrek memoria bat izan behar dutela, beren gain, hauen genero ikuspegia baloratzen duena “. (Alfama eta Alonso, 2011:30).

Azkenik, gobernantzan ere berdintasuna bultzatu da, eta berdintasun teknikaria kontratatuzko prozesuak legitimatu dira 2005eko legeaz geroztik. Alonso eta Alfamaren (2011) esanetan, berdintasunarekiko aurrekontua era berean ere handitu da. 2004ean Emakunderen aurrekontua %0,04a bazen, 2007an jada %0,77ra igo zen, besteak beste. (Silvestre, Novo, Elizondo, 2013; in Alonso eta Alfama 2015:34).

4.3. EAEKO UDALEN EGOERA BERDINTASUN POLITIEKTAN

Marko teorikoarekin amaitzeko, genero berdintasunerako politketan EAEko udalen egoera aztertuko da.

Udaletan batu dituzten datuen arabera, lurralde historikoen artean diferentzia anitz aurkitu dira. “*Arabari dagokionez, Gasteizen biltzen da lurraldeko biztanleriaren zati handi bat, eta udal gehienak txikiak direnez, asko zailtzen du berdintasunerako neurriak bultzatzeko egitura egonkorrak sortzea*”. (Emakunde, 2011:52). Araban, Amurrio eta Laudio izan ezik,berdintasun politika lokaletan ibilbiderik ez duten udalerrri txikiak dira gehienak. Gipuzkoako kasua, egoera mistoagoa da berriz; berdintasunaren alorrean ibilbidea duen neurri ertaineko udalak daude, baina aktibotasun honekin orain hasi diren udal txikiak ere asko dira oraindik. Azkenik, Bizkaian berdintasunean ibilbide gehiago duten udalerrri txiki eta handiak daude. Halere, 5.000 biztanletik beherako udalerrietan oraindik ere gai honetan lan egiten hasteko beharra dago, izan ere, foru aldundiaren politketan udalerrri horiek atzean geratu dira. (Emakunde, 2011).

1.grafikoan ikusten da laburturik ondo, zein den lurralde bakoitzaren egoera.

1.grafikoa: Tokiko administrazio bakoitzaren egoera berdintasun politketan



Iturria: Emakunde (2011:52)

Hiru lurraldeen erronka nagusia hori da beraz, udalerrri txikiak berdintasunean lanean aktibatzea. Honi aurre egiteko, 2010ean Araba eta Gipuzkoak Eudelekin akordio bat sinatu zuten, zeinetan udalerrri txikienei aholkularitza tekniko eskaintzen den berdintasuna lortzeko. Bestalde, Bizkaiko udalerrrien eta Foru Aldundiaren arteko harremana jorratzeko, “Parekatuz” programa abiatu da. (Emakunde, 2011). Ikerketa honek gehitzen du, gaur egun “Parekatuz” asertiboagoa da, eta beharra dagoen tokitara heltzeko gaitasun gehiago lortu du urteak joan ahala; jakinik premia gehien duten udalak 5.000 biztanletik beherakoak direla. Honengatik, 12 udalerrri eta mankomunitate bakarrera mugatu zen laguntza hau. (Emakunde, 2011).

Diru laguntzen politikari dagokionez, Emakundek planak eta diagnosiak egiteko diru laguntzak banatzen ditu gehienbat. Aldundiak berriz, teknikarien kontratazioan laguntzen du, honela bi beharrak asebetetzen direlarik. Aurrerago, ikerketa honetan aipatu berri diren Emakunderen urteroko diru laguntza hauek aztertuko dira; ezinbestekoak izan dira eta prozesu guzti honetan.

Ikerketarekin jarraituz, hiriburuetako ibilbidea antzerakoa da berdintasun planak egiten hasi ziren urteei dagokionez. Baina desberdina da ordea, planen jarraipenari dagokionean. Gasteizko udalean egon da jarraitasun handiena, hots, 1999tik 2003 arteko I.Planaren ostean, emakumeen aurkako jazarpenaren lehen plan bat egitea erabaki zen. (Emakunde, 2011)


Bilboko eta Donostiako udalei dagokionez, 1997an hasi ziren I.Udal Planarekin. Osterantzean, Gipuzkoan jarraipen gutxiagoko planak egin dira, baita Bilbon ere. Gasteizen ordea emakume eta gizonen arteko desberdintasunei buruzko diagnosi bat egin ostean, II.Udal Plana diseinatu zen. (Emakunde, 2011)

Txostenak zehazten duenez, Gasteizen eta Bilbon jarraipen handiagoa egin da udal- planak egin eta abian jartzen. (Emakunde, 2011). Aipatzen da, gainera, historikoki berdintasuna jorratzeko hain sentiberak edo iragazkorrak izan ez diren udal- arloak, gaur egun, ekintza orokorrak egiten dihardutela. EAEko hiru hiriburuetako udaletan egin ziren hainbat elkarrizketaren ostean, ondorengo ondorioztatu zuten:

“Administrazio- mailen artean baterako lan-dinamikak antolatze dagoen premiari buruzko gogoeta egitea, berdintasun-politikak sustatzeko eta garatzeko jarraibide politikoaren definizio komunagoa eta estrategikoagoa lortzeko, derrigorrezko aginduak eta agindu lotesleak ekarriko dituztenak, derrigorrezkotasunak Legea garatu eta betetzeko dela bermatzen duelako argudioa oinarritzat hartuta.”. (Emakunde, 2011:64).

Hiru udaletan, Berdintasun unitateak duen espazioa organigraman ez da berbera, ezta arlo bakoitzari atxikitako pertsona kopurua ere. Hau ondo islatzen da, 2.grafikoan. Bertan ikusi daiteke berdintasuna sustatzen duten taldeen kokapena organigraman, hiru hiriburuetako udaletan.

2.grafikoa: EAEko hiriburuen Berdintasun Atalen kokapena




Iturria: Emakunde (2011:66)

Datu hauen aburuz, Bilboko udalean, “Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarrak” sailaren barruan dago Berdintasuna sustatzeko unitatean bi teknikari zeuden. Donostiako Udalean, “Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta, Berdintasuna eta Giza Eskubideen Zuzendaritza” sailean hiru bitarteko langile (hiru teknikari) osatzen zuten. Azkenik, Gasteizko Udalarari dagokionean, Berdintasun Zerbitzua lehendakaritzan kokatzen da, ondorioz buruzagitzako pertsona batek eta berdintasunerako bi agentek osatzen zuten, administrari batekin bat. (Emakunde, 2011).

Hiru lurralde historikoetan udalek izan duten ibilbidea, 3.grafikoan laburbiltzen da:

3.grafikoa: EAEko udalen BP-n ibilbidea, lurralde historiko bakoitzean



Iturria: Emakunde (2011: 89)

Plan hauen ezaugarriari dagokionez, ibilbide handiagoa duten udalek, baita plana duela gutxi (2011an hain zuzen ere) onartu duten udalek ere, EAEko IV. Berdintasun Planaren antzeko egitura izan zuten. (Emakunde, 2011). Ardatz nagusiak gehienetan errepikatu dira:

mainstreaming-a, ahalduntzea, uztartzea eta/ edo erantzunkidetasuna eta genero- indarkeria. (Emakunde, 2011). Hala eta guztiz ere:

“Berdintasun-agente gehienek adierazten dute oro har ekintza kopuru handiegia duten planak direla udalaren jarduteko ahalmena eta aurrekontua kontuan hartzen badira, eta gainera asmo handiegikoak direla udalerrien eskumenak kontuan izanik. Beraz, uste dute planak ez direla errealistak kalitateari eta ekintzen kopuruari dagokienez.” (Emakunde, 2011:90).

Berdintasun politiketan ibilbide gutxiago edota langile egonkorrik ez duten Udalen artean, gertatu izan da planak kanpoko enpresa batek edota sei hilabeteko kontratu batekin dagoen langile batek egindakoak direla, eskura izan dezaketen diru laguntzaren bat aprobetxatuz. Kasu hauetan dokumentu hutsetan bihurtzen dira, inork ezagutzen ez dituenak. (Emakunde, 2011).

5. IKERKETAREN EMAITZAK

Landa lana jorratzeko, lehenengo eta behin EAeko 5.000 biztanletik gorako udalerrien zerrenda osatu da. Hemendik abiatu ostean eta lurralde historiko bakoitza banatuta, berdintasunean aktiboak eta ez aktiboan diren udalerrien sailkapena osatu da. Hau, jarraian azalduko den lehen fasean bitartez osatu da:

5.1 UDALEN AKTIBOTASUN MAILA

Lehenengo fase honetan, lan honen ikergaia edo aztertuko dugun aldagai nagusia definituko da; hain zuzen ere, EAeko 5.000 biztanletik gorako Udalen Berdintasun Politiken Aktibotasuna 2010 eta 2015.urteen bitartean. Udaletxea aktibo den ala ez berdintasunari dagokionean aldagai dependentea izango da beraz.

Aldagai dependente hau neurtzeko faktoreak edota ezaugarriak ondorengo bostak dira: Berdintasun Plana izatea, Berdintasun Saila (BS) eta Berdintasun Teknikaria (BT) izatea; *Berdinsarean* (EUDEL) parte izatea; eta Europako Gutuna sinatua izatea. Honek esango digu berdintasun politikak aurrera eraman diren ala ez udalerrri bakoitzean, edota berdintasun politikak aurrera eramateko beharrezko diren neurriak hartu dituzten, jarrera *proaktiboa* erakutsiz.

Jarraian, beheko taulan azaltzen den ezaugarrien arabera identifikatuko dira udalen jarrera berdintasun politikekiko: “*aktibo*”, “*nahiko aktiboak*” edota “*ez aktibo*” bezala. Hau da, aurretik aipatu den Emakunderen (2011) ikerketan egin den sailkapen antzekoa, ibilbidea duten udalekin eta ibilbide gutxiago dutenen artean. Sailkapena egiteko 3.taulan agertzen diren irizpideak jarraituko dira.

3.taula: Udaletako berdintasun politiketan aktibotasun graduak neurtzeko irizpideak

AKTIBOAK	NAHIKO AKTIBOAK	PASIBOAK
<ul style="list-style-type: none">•Berdintasunerako Teknikari propioa izatea•BU propioa izatea• 3 Berdintasun Plan edo gehiago izatea•Berdinsarean kide izatea•Europako Gutuna sinatua izatea	<ul style="list-style-type: none">•BT izatea (mankomunatua edo berezkoa).•BU izatea (mankomunatua edo berezkoa)•BP bat edo bi izatea•Europako Gutuna sinatua izan dezake edo Berdinsarean egon, baina aurreko biak ez baditu, udal honek ze du benetako konpromisorik edo beharrezko egiturak berdintasunerako.	<ul style="list-style-type: none">•Ez izatea huetako bat ala bat ere ez:•BT (propiorik ezta mankomunaturik ere ez)•BP•Europako Gutuna sinatua izan dezake edo Berdinsarean egon, baina aurreko biak ez baditu, udal honek ze du benetako konpromisorik edo beharrezko egiturak eta baliabideak berdintasunerako politikak aurrera eramateko.

Iturria: lanketa propioa

Irizpideak zehaztu ostean, lurralde historiko bakoitzaren udal-zerrendaz 7/8/9..taulak osatu dira. Taula hauek seigarren (Arabako lurralde historikoaren emaitzak), zazpigarren (Gipuzkoako lurralde historikoaren emaitzak) eta zortzigarren (Bizkaiko lurralde historikoaren emaitzak) eranskinetan ikusi daitezke. Taulen azkeneko zutabea, esan bezala, “emaitza” ikusten da: aktiboa, nahiko aktiboa edo pasiboa. Hau da, berdintasun politiketan aktibotasun gradua zein izan den.

1. Berdintasun Teknikaria (BT) izatea

Lehen aldagai ez askea edo dependentea, Berdintasun Teknikaririk (BT) dagoen ala ez izango da. Azken 10 urteetan berdintasun teknikari kopurua handitu da asko, baina hauen lan baldintzak zoritxarrez prekarioak dira maiz. (Emakunde, 2011). Berdintasun talde gehienek adierazten dute berdintasun- agente hauek duten lan baldintzek beren lan- kalitate eta garapenean eragina dutela. (Emakunde, 2011). Askok eman dute jakitera beren lanaldia partziala dela (astean bi edo hiru egunetako), gehienbat mankomunitateko langileena. Gainera, Emakundek (2011) gehitzen du, langile hauen ezegonkortasun maila nahiko aldakorra dela eta *“ibilbiderik gabeko udaletan eta tamaina txiki edo ertaina dutenetan, ordea, ohikoagoa da sei hilabeteak amaitzean, beste pertsona bat kontratatzea eta jarraitasunari baliorik ez ematea”*. (Emakunde, 2011:98). Teknikari edo agenteek esperientzia baldin badute Udaleko funtzionamenduan bai eta genero berdintasunerako gaietan, ikaskuntza prozesu bat egiten du eta bere lana zehatzagoa eta hobe izango da. (Emakunde, 2011).

Honi guztiari gehitu behar zaio lanean bakarrik ari diren udal- teknikari ugari daudela (administraririk gabe, eta beste teknikari batzuetatik isolatuta) eta elkarrekin topo egiteko, batak bestea zer egiten ari den jakiteko eta dituzten premietara espezifikoki egokitutako lan-ereduak diseinatzeke laguntza behar dute. (Emakunde, 2011). Bestalde, berdintasun zerbitzua mankomunatua dagoen kasuetan, langile hauek ez dute udalez udaleko kasuak partikularki lantzen (eta maiz, ezta ezagutzen ere) era orokorrago batean lantzen direlarik plan eta estrategia guztiak. Honek, BT-k udaletik eta herritarrengatik isolatzera eramaten duelarik. Hainbat kasutan behatu denez, udaleko langileek ez dute jakin izan, ea berdintasunerako langilerik dagoen ala ez beren udal propioetan edota berdintasun planik egin den (hala nola, Orioko kasuan, Berangon, Lazkaon edota Sopelan). Honek aditzera ematen du langile hauen komunikazio falta handia.

Honek guztiak, eragina dauka beraz. Honela adierazten du Emakunderen (2011) ikerketak:


“egia da berdintasun agente gehienen lan-egoera nahiko prekarioa dela, eta horrek oso eragin negatiboa duela, ez soilik udalaren barnean eta kanpoan kapital soziala sortzeko duten ahalmenean, baizik eta modu orokorragoan, neurri eta politika eraginkorrek ezartzeko eta garatzeko duten ahalmenean ere, bakarka egiten badituzte ere”. (Emakunde, 2011:98)

7/8/9.tauletan “M” batekin jarri da zerbitzua mankomunatua dagoen kasuetan. Izan ere udal batzuek ez dute langile propiorik berdintasunerako eta mankomunatua egoten da zerbitzu hau.

Lehen aldagaia aztertu ostean, hainbat ondorio atera dira. Lehenik, udal gehienek dute berezko BT udalean. Arabako kasuan lau udal-zerrendek dute teknikaria, baina Agurainen mankomunatua dago. Gipuzkoan, zerbitzua mankomunatua (M) duten kasu batzuk aurkitu dira: Hondarribia, Urretxu eta Zumarraga. Kasu hauetan, udaleko langileek beraiek adierazi didate ez dutela konstantziarik udalean bertan teknikari propiorik dagoela, eta Mankomunitatetik aldizka

etortzen diren langileak dutela kontratatuta (esaterako Aguraingo kasuan ere, soilik astelehenetan lan egiten du teknikariak eta bitartean sailak ez du funtzionatzen ere ez). Derion ere, bai BT bai BS mankomunaturako zerbitzuak dira eta udalean bertan ez dago langilerik honetarako. Hauek, herriz- herriko arreta ematen dute, eta astean behin edo birritan lan egiten dute udal bakoitzean. Gernika- Lumoko kasuan, aipatu beharra dago gaur egun ez dagoela jada teknikaririk, baina ikerketaren epealdian egon dela. Urrietako kasuan esaterako, ez dago berdintasunerako agente zehatzik, baina Gizarte Zerbitzuen gain dagoen langileriak ematen du emakumeentzako arreta berezia. Lekeition, badago berdintasunerako langilea, baina azpi-kontratuak daukala adierazi didate, eta astean oso ordu gutxi ematen dituela lanean. Leioako kasua antzerakoa da, zerbitzua badago baina enpresa bat kontratatu dutela adierazi dute. Hau da, BT eta BS enpresa batek eramaten duela, azpi- kontratatutakoa. Halere, honek ez du esan nahi BT plaza dagoenik eta kasu hautan “Ez” markatzen da tauletan. Santurtziko kasuan telefonoz adierazi dutenez, jubilatuta egin zen epealdi honetan berdintasunerako agentea; geroztik ez da plaza hau bete. Oiartzungo kasuan, 2010-2015eko epealdian ez da egon teknikaririk uneoro, halere, gaur egun, bai dago langile bat honetarako. Bestetik, Urrietako kasuan, gaur egun bada berdintasunerako langilea, halere ikerketaren epealdian ez zegoen inolako teknikaririk honetan lan egiteko. Amaitzeko, esan bezala udal gehienek dute teknikari propioa: 25 udalek dute Bizkaian berdintasunerako teknikari propioa edo ez mankomunaturatu, Gipuzkoan 26 udalerrik eta azkenik Araban hirurek. Hau 1.grafikoan hobeto ikustarazten da:

4.grafikoa: Berdintasun Teknikarien sailkapenaren araberako grafikoa



Iturria: lanketa propioa

Goiko grafikoa erreparatu dezakegunez, udal gehienak izan dute hiru lurralde historikoetan Berdintasunerako Teknikaria. Gainera, Gipuzkoa eta Bizkaia artean ez dago desberdintasun handirik eta Arabako kasuan, aurretik aipatu bezala, Agurain soilik da salbuespena. Ondorioz, emaitzak orokorrean nahiko positiboak direla esan dezakegu. Izan ere, aurretik azaldu den lez, berdintasun politikak garatzerako orduan ezinbestekoa dira udal langile hauek, egunerokotasunean honetan jarduteko administrazioaren esparru orotan berdintasuna txertatzen.

2. Berdintasun Saila (BS) izatea

“Benetan zeharkakoak diren politiken lorpenean eta barneko nahiz kanpoko kapital sozialaren sorkuntzan funtsezko alderdia dira berdintasun- unitateak, eta zehazki berdintasun agenteen edo horien eginkizuna betetzen duten pertsonen egoera eta ezaugarriak.” (Emakunde, 2011:98).

Ikerketa honetan, soilik BS dagoen ala ez kontuan hartuko da. Izan ere, egitura hau udalez-udal asko aldatzen den egitura dela ohartu naiz ikerketan zehar. Udal batzuetan Berdintasun saila berariazkoa da, beste batzuetan ordea Gizarte Saila edota beste zerbitzuekin konpartitzen da, beste batzuetan unitate forma dute edota departamendua. Honenbestez, eta 71 udal-organigrama aztertzea eta laburbiltzea ezinezkoa denez, BS dagoen ala ez aldagaira mugatuko da ikerketa hau. Mankomunatu dagoen kasuetan, hau da, udalean ez bada organorik edo sailik berdintasuna jorratzeko, zuzenean “M” batekin jarri da 6/7/8.tauletan.

Berdintasun Unitateen zailtasunik handiena, emakumeei zuzendutako politika edo programa espezifikoz sail guztien inplikazioa lortzea da. (Emakunde, 2011) Hau da aurretik aipatu dugun *mainstreaming* estrategia, hain zuzen ere. Honengatik, ongizatearekin edota gizarteratzearekin lotutako unitateek emakumeei zuzendutako programak ere izan oi dute; ez ordea sustapen ekonomikoa, enplegua, ogasuna edota hirigintza bezalako sailek. Izan ere hauek tradizionalki genero ikuspegia txertatzeko zailtasun gehiago duten gaiak izan dira, ustez. Honek guztiak esan nahi du, berdintasun unitatea izan arren, ez duela ziurtatzen honen eragina baikorra edo guztizkoa izango denik. Hiri Debekatuaren Mapak egiterakoan, askotan errepikatu diren egoerak dira hauek, jarrera ezkorra edo gutxiestekoa, berdintasunarekiko. (Emakunde, 2011).

Azkenik, jakinaren gainean da Berdintasun Unitate bat izatearekin nahikoa ez dela honen sustapenerako. Berdintasunaren alorraz aparte, udalean barne mailan berdintasuna ezartzeko zein sail, administrari, zinegotzigo, politikari ... dauden eragina izango du halaberharrez. Sentsibilizazio eta prestakuntza maila udal guztian zehar ez da berdina eta ondorioz Berdintasun Unitatetik estrategiak garatzea beharrezkoa litzake. (Emakunde, 2011) Elkarrizketa telefonikoetan, udal ezberdinetako teknikariek aipatu dute udaletik kanpo elkarte mugimendu sendoa dagoela, eta hori indartzen dihardutela, besteak- beste emakumeen elkarte ezberdinei diru laguntzak emanaz.

Datu guztiak batu ostean, hainbat ondorio atera dira. Berdintasun Sailen kasuan, BTen egoera berbera errepikatzen da. Hasteko, esan beharra dago udal gehienek dutela berdintasun sail, unitate, departamendu edota lan talde batez osaturiko gune bat berdintasun politikak martxan jartzeko. Gernikako kasuan, orain arte BS egon da, gaur egun ez dagoen arren. Urnietako kasua, jarraitzeko, badago berezko sailik, baina beste departamendu batzuen barruan dago eta teknikari zehatzik ez dago honetan jarduteko, aurretik aipatu den bezala. Hau da, Gizarte Zerbitzuan barruan dagoen azpi- sail bat da Berdintasuna, baina ez dago agente berezirik honetan soilik jarduten dena. Orioko kasuan antzeko zerbait gertatzen da, Udalak ez badauka berdintasun unitatea, ordea ez dago honetan jarduten duen personal teknikorik baina Gizarte Zerbitzuan barruan kokatzen den saila da. Egoera hauek definitzeko ez dira errazak izaten, izan ere Gizarte Zerbitzuetan arreta ematen den arren, ez du ziurtatzen arreta honen kalitatea %100ekoa izango denik. Kontuan izanik, gainera, bere departamenduko gaiak ere jorratu beharko dituztela bertako langileek. Berdintasun Sailik ez dauden kasuak hainbat dira. Esaterako Derion, Bermeon, Orion, Mutrikun ... Aipatutako azken kasu hauetan, udaleko

langileek sailik ez dagoela erraztu didate informazioa, horregatik “Ez” batekin ikusi daitezke x.tauletan. Halere, honek ez du ziurtatzen mankomunitate mailan ez denik ezer egingo. Mankomunitateetako berdintasun sailak dituztela adierazi duten udalek, “M” batez daude adierazita, lehenago azaldu den bezalaxe. Hala nola, Bermeo, Derio, Agurain, Gorliz eta Gueñes Bizkaian; Zumarraga eta Urretxu Gipuzkoan.

3. Berdintasun Plana (BP) izatea

Jarraitzeko, Berdintasun Plana (BP) dagoen ala ez aztertuko da. Berdintasun politiketan esku-hartze koordinatu eta eraginkorra burutu ahal izateko guztiz beharrezkoak diren tresnak dira berdintasunerako planak. 4/2005 Legeaz geroztik, gainera, berdintasunerako planak ezartzera beharturik daude administrazioak maila autonomiko, foral eta tokikoan.

BP dagoen ala ez datuaz aparte, beste datu garrantzitsu bat batu da landa- lan honetan: zenbatgarren planean dagoen Udala. Izan ere, berdintasunerako bigarren edo hirugarren plana lantzen ari diren kasuetan, “*dokumentua udaleko errealitatera egokitzea lortzen da, parte hartze handiagoa duten eta udalaren ezaugarrietara hobeto egokitzen diren plana eginez*”. (Emakunde, 2011:90). Beste alde batetik, kasu honetan ere, “M” batekin markatu da 6/7/8.tauletan BP mankomunitateak duten kasuak. Zehazkiago esanda, BP propiorik ez duten udalen kasuetan (hala nola, Urretxu edo Gorliz) plan mankomunitatearen bat izaten dutelako (gehienbat udal txikienetan).

Aurretik aipatu bezala, Otero eta Bouzasek (2012) ere beren ikerketan erabiltzen duten aldagaia da hau. Honela definitzen dute autore hauek programok:

“Generoari dagokion gaietan betebeharrezko neurri eta norabideak dira Berdintasun Planak; gobernu maila eta sail ezberdinen arteko koordinazioa eskatzen dute (...) ondorioz, ez da soilik zinegotzigo zehatz baten betebeharra izango, baizik eta udaleko sail guztien ardura”. Otero eta Bouzasek (2012:154)

Berdintasun Plana osoko bilkuran onartzeak, politika eta agenda lokalean berdintasuna eta genero ikuspegia txertatzea ekarri behar du. (Bouzas eta Otero, 2012). Lombardok (2002) azaltzen duenez, udaletan garatu diren BPak maila autonomikoan, nazionaletan zein europarrearantz izan dira, eta egitura- koordinazio antzerakoa dute. Plan hauek esan bezala, osoko bilkuran onartzeak, legitimazioa ematen die. Honez gain, ardura politikoa izango du gobernu lokalak eta alderdiek hau betetzeko, aho- betez onartu bada behintzat.


Azkenik, azpimarratu beharra dago BP honek sail eta departamendu guztietako langileak barnebidu behar dituela berdintasunean lan egiteko, administrazio osoa inplikaturik. Honela, genero berdintasunaren aldeko unitateak ez du aldebakarkotasunez lan egin behar eta justifikazio gisa erabili ahalko du BP onartzeak, betebehar bezala Udal guztientzat.

Datuei erreparaturik gero, Arabako kasuan udal guztiek egin dute BP Agurainek ez ezik (bere kasuan plan mankomunitate⁴ dauka Aguraingo Koadrila osoan zehar egin zena), Amurrio izan delarik plan gehien jorratu duen udalerrria (lau planekin). Gipuzkoan, Eibarrek dauka ibilbide gehien berdintasun planetan, laugarren plana onartuta dagoelarik jada. Bigarrenik, berdintasun planetan ibilbide nahikoa duten udalerrriak, hiru planekin Donostia, Elgoibar, Irun, Zarautz eta Tolosa izan dira. Gogoratu beharra dago, hirutik gorako planak duten udalerriek udalerrria

gehiago egokitzen diren planak osatzen dutela, Emakunderen (2011) aburuz. Azkenik, Zumarraga eta Urretxuko kasuetan azaldu zidatenez, biek plan bera diseinatu zuten, Goierri Garaiko emakumeen beharrak jasotzeko helburu zuena. Oartzuneko kasuan aipatu behar da, diagnosi bat egin zela eremu soziopolitikoetan emakumeen parte hartzea aztertzeko. Gainera, azpimarratu zidaten plan 2013-2016 epealdiko planak ez duela inolako arrakastarik izan eta jarduera orokorrean “nahiko eskasa” izan dela, berdintasunerako teknikaririk gabe honetan jardutea ezinezkoa egin zaielako. Bizkaiko kasuari erreparatu gero, egoera aktiboa da. Basaurin ez da berdintasunerako plan espezifikorik egin, baina adibidez “Beldur Barik” programa martxan jarri zen, BS-tik bultzatuta, indarkeria matxistaren aurkako prebentzio programa bezala. Lau BP egiten duten udalerrri gehienak bertan kokatzen dira: Zalla, Santurtzi, Portugalete, Getxo, Elorrio eta Bilbo. Plan mankomunatuak dutela aditzera eman didaten udalak Bermeo, Gorniz eta Sopela izan dira. Bestetik, udal gehienek hiru edo bi plan gauzatu dituzte epealdi honetan.

Azkenik, 5.grafikoan erreparatu daitekeenez, udal gehienek dute plana. Ikerketa honen denbora tartearen barruan, 20 udalek egin dute BP propioa hiru aldiz edo gehiago Bizkaian; Gipuzkoan 27 udalek eta Araban hiruk.

5.grafikoa: EAEko udalen Berdintasun Planen (BP) araberako sailkapena



Iturria: lanketa propioa

Ondorioz egoera oso positiboa da, izan ere aurretik azaldu den bezala, BP *mainstreaming*a txertatzeko tresna beharrezkoak dira. Hauek, “derrigorrezkotasun” zentzua ematen die berdintasun politikari eta udalean berdintasunean lan egiteko ezinbestekoak dira.

4. Berdinsarearen (Eudel) kide izatea

Berdinsarea Emakumeen Aurkako Indarkeriaren eta Berdintasunaren Aldeko Udalerrien Sarea da, zeina 2005ean sortu zen Eudel eta Emakunderen arteko lankidetzaz hitzarmen baten ondorioz. 2009ko apirilean, 43 udalerririk osatzen zuten; horietatik 3 Araban, 11 Gipuzkoan eta 32 Bizkaian. (Emakunde, 2011). Gaur egun, Bizkaian eta Gipuzkoan udalerrri gehiago batu dira (ikus 5.eranskina), gehienbat Gipuzkoan; orain, Bizkaian 41 udalerrri daude eta Gipuzkoan 19.

Berdinsarearen kide izateko, udalerriek hainbat ezaugarri bete behar dituzte. Hala nola, berdintasun- planak izan behar dute – gutxienez bat-, gai horretan esperientzia eta prestakuntza duten teknikariak egon behar dira, udal- kudeaketan emakume- elkarteek parte hartzea ahalbidetzen duten guneak ere egon behar dira etab. (Emakunde, 2011). Halere, hau teorikoki betetzen bada ere, praktikan ikusi da ezaugarri guztiak ez direla betetzen.

EEEIk 2011an aztertu zuenez, plana duten 112 udalerrietatik 43 sarearen barruan daude eta jadanik BT eta aurrekontua duten udalerriak dira. Hots, abantailazko egoera batean dauden udalerriak direlarik.

Datuei erreparatuz, Araban lau udalerrietatik hiru daude *Berdinsarean*, bigarren postuan Gipuzkoa aurkitzen da 18 udalerrirekin (Andoain, Arrasate, Azkoitia, Azpeitia, Deba, Donostia, Eibar, Elgoibar, Hernani, Legazpi, Mutriku, Oñati, Ordizia, Tolosa, Urretxu, Usurbil, Zarautz eta Zumarraga). Azkenik Bizkaian 30 daude. Besteak beste, Abadiño, Abanto, Amorebieta, Arrigorriaga, Balmaseda, Barakaldo, Basauri, Berango, Bilbo, Derio, Durango, Elorrio, Erandio, Ermua, Galdakao, Gernika, Getxo, Gorliz, Gueñes eta Leioa. Kontuan izan behar da datu hauek 5.000 biztanletik gorako udalerriak direla, izan ere, aurretik azaldu denez Gipuzkoan eta Bizkaian udalerrri gehiagok parte hartzen dute *Berdinsarean*.

5. Europako Gutuna sinatua izatea

Azken aldagaia, “European Charter for Equality of Women and Men in Local Life” (2006) gutuna sinatua izatea da. Honek ez dauka beste aldagaiek bezalako garrantzirik, baina instituzio lokalak hartutako konpromiso bat gehiago da. Europako Udalerrri eta eskualdeen kontseiluak 2006ko maiatzean jarri zuen martxan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Europako Gutun hau. Gutuna³ tokiko eta eskualdeetako gobernuei zuzentzen da, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioaren aldeko apustu publikoa egitera gonbidatzeko, eta lurraldeen konpromisoak barnebiltzeko.

2015eko urtarrilaren 16an sinatu zuten Europar Batasuneko hainbat udalerririk, printzipio hauekin:

- Emakume eta gizonen berdintasuna oinarritzko eskubidea da.
- Emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko, bereizketa anitza landu behar da: jatorri etnikoagatik, ezintasunen batengatik, orientazio sexualagatik, egoera sozioekonomikoagatik ... bereizkeria.
- Emakume eta gizonen parte hartze orekatua bultzatzea.
- Genero estereotipoak ezabatzea.
- Eskualdeko eta maila lokaleko gobernuetan genero ikuspegia txertatzea, ekintza orotan.

Gutun hau guztiz teorikoa dela esan beharra dago, eta hainbat udalerriren asmoak edo “nahi positiboak” islatzen dituela, errealitatea beste bat delarik. EAEn 33 udalerrri ezberdinek sinatu zuten Europar Gutuna (ikus 1.eranskina). Halere, batzuk 5.000 biztanletik beherako udalerrriak dira (Legorreta eta Burgelu) eta ikerketatik at geratzen dira.

Ikerketan batu diren datuen arabera, Araban udalerrien erdiak sinatu du Gutuna: Amurrio eta Laudiok hain zuzen ere. Aipagarria da Gasteiz dela hiriburu bakarra ez duena sinatu gutuna.

Bestalde, Gipuzkoan, proportzionalki oso udalerrri gutxik sinatu dute. Donostiak, Errenteriak, Tolosak eta Urnietak hain zuzen ere. Bizkaia izan da, beraz, udalerrri gehien sinatu duen lurralde historikoa. Sinatu ez dutenak, Amorebieta- Etxano, Gorniz, Durango, Derio, Bermeo, Trapagaran ... dira besteak- beste.

Lehen fase honi amaiera emateko, 7./8./9. tauletatik, beheko taula hau ondorioztatu da. Bertan, udalerrrien aktibotasun mailaren arabera zerrenda bat egin da.


4.taula: EAEko udalerrrien zerrenda Berdintasunean aktibotasun mailaren arabera sailkatuta

AKTIBOAK	NAHIKO AKTIBOAK	PASIBOAK
<ol style="list-style-type: none"> 1. Abanto- Zierbena 2. Arrigorriaga 3. Balmaseda 4. Barakaldo 5. Bilbo 6. Elorrio 7. Erandio 8. Ermua 9. Gernika- Lumo 10. Getxo 11. Mungia 12. Muskiz 13. Ondarroa 14. Portugalete 15. Santurtzi 16. Sestao 17. Zalla 18. Zarautz 19. Tolosa 20. Irun 21. Elgoibar 22. Eibar 23. Donostia 24. Arrasate 25. Amurrio 26. Laudio 27. Gasteiz 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Abadiño 2. Amorebieta- Etxano 3. Basauri 4. Berango 5. Derio 6. Durango 7. Etxebarri 8. Galdakao 9. Gorniz 10. Gueñes 11. Leioa 12. Lekeitio 13. Ortuella 14. Sopela 15. Andoain 16. Aretxabaleta 17. Astigarraga 18. Azkoitia 19. Azpeitia 20. Beasain 21. Bergara 22. Deba 23. Errenteria 24. Hernani 25. Lasarte-Oria 26. Legazpi 27. Lezo 28. Oiartzun 29. Oñati 30. Ordizia 31. Pasaia 32. Usurbil 33. Zumaia 34. Agurain 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Bermeo 2. Trapagaran 3. Zumarraga 4. Billabona 5. Urretxu 6. Urnieta 7. Orio 8. Mutriku 9. Lazkao 10. Hondarribia

Iturria: lanketa propioa.

4.taula laburbiltze aldera, Arabako udalerriak aktiboak izan dira epealdi honetan, Aguraingo kasua ez ezik. Gipuzkoan, kasua mistoagoa da, izan ere bertan hain bat udalerri pasibo aurkitu dira: Hondarribia, Lazkao, Mutriku, Orrio, Urnieta ... Aipatu beharra dago, hala ere, udal gehienak nahiko aktiboak izan direla eta orokorrean berdintasunerako politikak sortzen baliabideak badituztela: Berdintasun Teknikari propioa dutelako gehienek baita saila ere. Gainera, gutxienez plan bat udal guztiek onartu dute, kasu gutxi batzuk izan ezik (Legazpi). Aktiboak izan diren udalerriak epealdi honetan, Donostia, Eibar, Elgoibar, Irun, Tolosa, Arrasate eta Zarautz izan dira. Bizkaian berriz, udalerri aktiboenak aurkitu ditugu. Berdintasun politikak jorratzeko ezaugarri gehien bete dituztenak hain zuzen ere. Berdintasun politiketan izandako aktibotasun maila altua izan da (“aktiboa”) ia kasu gehienak, Bermeo, Derio eta Trapagareneko kasuak ez ezik, besteak beste. Azken hauek jarrera pasiboagoa izan dute eta politika hauek ez dute honenbeste garatu. Azkenik, nahiko aktibo izan diren udalerriak eta aktiboak izan direnak, kopuru antzerakoa izan dira.

6.grafikoa: EAEko udalerriek berdintasun politiketan izan duten jarrera 2010-2015 bitartean



Iturria: lanketa propioa

Goiko grafikoan agertzen den bezala, ikerketa honetan parte hartu duten Gipuzkoako udalen %58,82a (20) “nahiko aktiboak” izan dira, %21,21a (7) “aktiboak” eta gainontzekoak (7) “pasiboak”. Bizkaian berriz ikerketa honetan parte hartu duten Bizkaiko udalen gehiengoak, hain zuzen ere %51,51a (17) udal “aktiboak” izan dira berdintasun politiketan, bestalde nahiko aktiboak %42a (14) izan dira gutxi gora- behera, hau da, Gipuzkoako kasua baino gutxiago eta gainontzekoak (2) pasiboak izan dira. Azkenik, laginaren barruan, Arabako udalen %75ak (3) jarrera *proaktiboa* izan du berdintasun politika lokaletan eta gainontzekoak nahiko aktiboa ere. Beraz, egoera positiboa dela esan daiteke, izan ere udalerrigehienak aktiboak edo nahiko aktiboak izan dira berdintasun politiketan 2010 eta 2015.urteen bitartean. Berdintasun politika hauei buruzko sakontasun maila gutxi dugun arren, argi geratu da hauek sortzeko eta garatzeko nahikoa baliabide pertsonal zein tekniko badituztela udalak.

5.2 AKTIBOTASUNA ULERTU NAHIAN

Lehen fasean udalerrien aktibotasuna definitu ostean hauen zergatiak azaldu nahi dira jarraian. Lanaren bigarren fasean, aktiboak diren udalerriak zergatik diren aktibo ulertzen saiatu nahi da. Honetarako, aldagai batzuk ezarri ditut, aurretik esan bezala, azaltzen lagunduko dutenak (edo ez) udalerrri hauen aktibotasun gradua. Hauek, aldagai independenteak edo aldagai askeak izango dira; alegia, udalerrria zergatik den aktiboa edo ez azaltzen duten aldagaiak direlako eta honen azalpenerako arrazoiak aurkitzen dituztelako.

Lehen aldagai independentea udalerrien tamaina izango da. Honetarako bost mila biztanletik gorako udalerrien zerrenda egin ostean, bi kategorietan banatu dira: Udalerrri ertaina (E) eta udalerrri handia (H). Bigarren aldagai askea, udalerrrian alkatetzan izandako alderdia izango da 2003, 2007 eta 2011ko udal hauteskundeetan. Izan ere ikerketa honen denbora tartean (2000-2015) egon diren udal hauteskundeak baitira. 2015ekoak baztertzeko dira, hauen eragina neurtezina delako. Hirugarrenik, alkatetzaren sexua izango da, aurrekoaz bat aztertuko dena. Honen haritik, M.L. Estebanek (2016) egiten duen bezalaxe, “*emakume*” eta “*gizon*” terminoak erabiliko ditut aurrerantzean ikergai guztian zehar, “*zentzu sozialean geu ere emakume ala gizon bezala izendatuak garen neurrian*”. (Esteban, 2016: 17). Amaitzeko, urtero Emakundek ematen dituen diru laguntzak aztertuko dira. Hots, udaletxeek zenbatetan jaso duten edo ez duten inoiz ere jaso EEI-ren berdintasunerako laguntza ekonomikoak, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaz banatzen direnak.

Udalerrien aktibotasun graduaren zergatiak ulertzeko aldagaiak zehaztu ostean, lurralde historiko bakoitzaren udalerrri-zerrendaz 10./11./12. taulak osatu dira. Hauetan, lehen zutabeen udalerrriaren izena agertzen da eta bertan koloreztatua agertzen da bere aktibotasun graduaren arabera. Morez daudenak, aurreko atalean ikusi den bezala, “aktiboak” bezala definitu dira berdintasun politikan; kolore arrosa dutenak “nahiko aktiboak” dira eta azkenik kolore gorridunak, “pasiboak”. Bigarren zutabeen udalerrriaren tamaina azaltzen da. Bertan, urdinez daudenak, udalerrri handiak dira (H) eta zuriz daudenak udalerrri ertainak (E). Hirugarren zutabeen, Emakunderen diru laguntza zenbatetan jaso duten agertzen da zenbaki batez zehazturi. Laugarren eta azken zutabeei dagokionez, hiru urteetan banatzen dira (2003/2007/2011) eta alderdi politikoa eta urte bakoitzeko alkatearen sexua azaltzen da. Alderdi politikoa akronimo bitartez azaltzen da eta azkenik alkateen sexuak “E” (emakume) eta “G” (gizon) bezala sailkatzen dira. Alkatetza emakumezkoa den kasuetan, grisez agertzen da laukitxoa, baita urte bereko alderdia ere laugarren zutabeen. Honela, konparazioa egiteko eta ondorioak ateratzeko argiago ikusten baita.

1. Udalerrien tamaina

Emakunderen (2011) arabera, Araban udalerrri txikiak jardunbide murriztagoa izan dute berdintasun politikan udalerrri handi eta tamaina erdikoak baino. Lagina 5.000 biztanletik gorako udalerrriak izatean, Araban soilik hiru herrixka eta hiriburua dira aztergai. Azken hauek izan dira orain arte, berdintasun politikan ibilbide garatuagoa izan dutenak. Bizkaia eta Gipuzkoan ere antzerako kasua ematen da, zeinetan udalerrri ertain eta handiek ibilbide gehiago jorratu duten. Ondorioz, 5.000 biztanletik beherako udalerrriak baztertu egingo dira,

erabakitzeko ahalmen gutxiago dutelako eta menpekotasun gehiago dutelako konpetentzietan. Udalerrriak neurriaren arabera banatzeko, hauen biztanleriaren arabera banatuko da bi multzo handietan. Honenbestez, udalerrriak “ertaina” (E) ala “handia” (H) bezala sailkatuko dira 10./11./12.tauletan. Honekin zehatzago ezagutuko da Udalerrriak duen tamaina eta honek benetan eragina duen edo ez.

Zinegotziak biztanleriaren arabera ezartzen dituen Estatuko 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, “Bases del Régimen Local” arabera bederatzi multzo handietan sailkatzen dira udalerrriak:

1. 100 biztanle arte: 3 zinegotzi dituzten udalerrriak
2. 101- 250 biztanle artean: 5 zinegotzi dituzten udalerrriak
3. 251- 1.000 biztanle artean: 7 zinegotzi dituzten udalerrriak
4. 1.001 - 2.000 biztanle artean: 9 zinegotzi dituzten udalerrriak
5. 2.001- 5.000 biztanle artean: 11 zinegotzi dituzten udalerrriak
6. 5.001- 10.000 biztanle artean: 13 zinegotzi dituzten udalerrriak
7. 10.001- 20.000 biztanle artean: 17 zinegotzi dituzten udalerrriak
8. 20.001- 50.000 biztanle artean: 21 zinegotzi dituzten udalerrriak
9. 50.001- 100.000 biztanle artean: 25 zinegotzi dituzten udalerrriak

Esan bezala, kasu honetan bi azpimultzo eratuko dituzten udalerrriak biztanleriaren arabera sailkatzeko, betiere ikerketaren laginaren barruan. Hau da, 5.000 biztanlerik gorako udalerrriak, bi multzo handietan banatuko dira. Honenbestez, azken lau talde hauetan sartzen diren udalerrriak hartuko dira kontuan. Hots, 13 zinegotzitik gora duten udalak parte hartuko dute laginean, eta honenbestez ondorengo lau azpi multzo hauek izango lirake nire lagina:

1. 5.001- 10.000: 13 zinegotzi (E)
2. 10.001- 20.000: 17 zinegotzi (E)
3. 20.001- 50.000: 21 zinegotzi (H)
4. 50.001- 100.000: 25 zinegotzi (H)

Beraz:

- ❖ “Ertaina” bezala sailkaturiko udalerrriek lehen ERDIA barnebiltzen dituzte: **5.001 eta 20.000 biztanle** arteko udalerrriak hain zuzen ere. (E)
- ❖ “Handia” bezala sailkaturiko udalerrriek bigarren ERDIA barnebiltzen dituzte: **20.001tik 100.000 arteko biztanledun** udalerrriak hain zuzen ere. (H)

Lehenengo sailkapenari dagokionez (E), ondorengo udalerrriak dira:

- ✓ Araban 3 (Laudio, Amurrio, Agurain);
- ✓ Gipuzkoan 27 (Andoain, Aretxabaleta, Astigarraga, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Bergara, Deba, Elgoibar, Hondarribia, Lasarte-Oria, Lazkao, Legazpi, Lezo, Mutriku, Oiartzun, Oñati, Ordizia, Orio, Pasaia, Tolosa, Urnieta, Urretxu, Usurbil, Billabona, Zumaia, Zumarraga);
- ✓ Eta azkenik Bizkaian 25 (Abadiño, Abanto Zierbena, Amorebieta Etxano, Arrigorriaga, Balmaseda, Berango, Bermeo, Derio, Elorrio, Ermua, Etxebarri, Gernika- Lumo,

Gorliz, Gueñes, Lekeitio, Mungia, Muskiz, Ondarroa, Ortuella, Sopela, Trapagaran, Zalla).

Bigarren sailkapenari dagokionez (H), ondorengo udalerriak dira:

- ✓ Araban bakarra (Gasteiz);
- ✓ Gipuzkoan 6 (Arrasate, Donostia, Eibar, Errearteria, Hernani, Irun eta Zarautz);
- ✓ Eta azkenik Bizkaian 11 (Barakaldo, Basauri, Bilbo, Durango, Erandio, Galdakao, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestao).

Datu bilketaren ostean, hainbat ondorio atera dira. Arabako kasuan, udalerri gehienak txikiak dira; jakina denez, udalerri handi (“H”) bakarra, 20.001etik gorako biztanleriarekin hiriburua da; ikerketa honetako beste hiru udalerriak ertainak direlarik. Udalerri “H”, Gasteiz kasu honetan, aktiboa izan da berdintasunerako politikak garatzen. Gipuzkoari dagokionez, udalerri handiak Arrasate, Donostia, Eibar, Errearteria, Hernani, Irun eta Zarautz dira. Errearteria eta Hernani ez ezik, beste guztiak aktiboak izan dira berdintasun politikak jorratzen udaletan, berez hemen erlazio bat ikuskatu genezake. Gainera, Errearteria eta Hernanik ere ez dute jarrera pasiboa izan politika publiko hauek garatzen, nahiko aktiboak izan direlarik. Bestalde, gainontzeko udalerri ertainetan egoera mistoagoa da. Izan ere kasu partikular asko daude; adibidez Urnieta, Mutriku, Orio eta Urretxu bereziki nahiko udalerri txikiak direla kontuan izanda, beraien aktibotasun maila baxua edo pasiboa azpimarratu beharra dago. Bestelako udalerriak, osterantzean, hala nola Pasaia, Usurbil, Oñati, Errearteria, Azpeitia, Azkoitia etab. “E” bezala klasifikatu arren, aurrekoak baino biztanleria gehiago duten udalerriak dira eta gainera, hauek guztiak “nahiko aktiboak” izan dira berdintasun politiketan. Hemen beraz, ikusten da harreman bat dagoela udalerriaren tamainaren eta berdintasun politiketan aktibotasun graduaren artean. Ondorioz, lehenengo hipotesia baieztatzen da. Udalerrien tamainaren eta berdintasun politiketan aktibotasunaren artean korrelazioa dago: udalak geroz eta handiagoak izan, hau da, biztanleria gehiago badute, berdintasun politiketan aktiboak dira.

2. Gobernuan dagoen alderdia eta alkatetzaren sexua

Bigarrenik, 2003, 2007 eta 2011ko hauteskundeetan alkatetzan izan diren gobernuetako alderdik aztertu dira, baita alkatetzaren sexua ere. Ikerketa ezberdinek egiaztatu dute alderdi politikoaren eragina ukazina dela eta ideologia “progresista” duten alderdiek berdintasunarekin (administrazioetan behintzat) konprometituta egoteko jarrera dutela. (Otero eta Bouzas, 2012). Dena dela, autore guztiak ez dira zuzenean EAeko gobernu lokalei buruz hitz egiten ari, eta kasu honetan eragina oraindik aztertzeaz egongo litzateke.

Ukazina da, borondate politikoak baldintzatuko duela berdintasunari atxikiko zaion garrantzia udalaren jardueran. 2011an Emakundek argitaratu zuen balorazio txostenean azaltzen denez, berdintasunaren arloko jarrera eta inplikazio politikoa “*pixka bat hobetu da*”, izan ere berdintasunaren aurkako edo “*kontrakotasun esplizituak*” murrizten ari dira “*politikoki okerra*” delako honi aurka egitea. Gehitzen du, “*inplikazio politikoa, nahitaez konpromiso eta ekimen jakin batzuetan oinarritu behar duena izanik, ezinbesteko baldintza da berdintasuneko udal politikak behar bezala garatzen direla bermatzeari begira*”. (Emakunde, 2011:64)

Bestetik, alkatetzan edo edozein gobernu mailatan egon daitekeen agintariaren sexuak, berdintasun politikak garatzerakoan izan dezakeen eraginari buruz asko idatzi eta ikertu da.

Honela egiten du, hala nola, ordezkaritza sustantiboa eta ordezkaritza deskriptiboaren teoriak. “Rethinking women’s substantive representation” (2008) artikulua dioenez, hainbat eskolek aztertu nahi izan dute ea ordezkariak representatiboak (ordezkarietan emakume kopurua handitzean aldeko korronte ideologikoa) handitzen duen emakumeen diskriminazioaren aurkako politikak (ordezkariak sustantiboa). Autore hauek azaltzen dutenez, ordezkariak sustantiboa dio ordezkariak ordezkariak direnen azpitik egon behar dutela eta ez alderantziz, jarrera harbera izanda.

Otero eta Bouzasen (2012) aburuz handienetan emakumeen presentzia goi karguetan murriztagoa da udalerrri txikietan baino. Beraien ikerketan (2012) ikusi denez, zoritxarrez alkategai gehienak udalerrri ertain zein handietan gizonetzkoak izan dira. Honengatik epe luzeago batean eta sakonkiago aztertu beharreko aldagaia izango litzateke. Politikaren *feminizazioaz* Justa Monterok (2016), ere idatzi zuen iritzi- artikulua. Bere hitzetan:

“Politika feminizatzeak gauza asko hartzen ditu berarekin eremu publikoan emakumeen presentzia areagotzetik hasita, etika eta politikaren fundamendua edo politikaren beraren edukia zehazteraino. Beraz, esanahi bat baino gehiagoko kontzeptua da, anbiguala, interpretazio askotarikoak onartzen dituena bai feminizazioari dagokionez baita politikari dagokionez ere”.
(Montero, 2016)

Monteroren ustez (2016) gaur egungo panoraman emakume askok politika egiteko bestelako erak praktikatzan dituzte eta jardura parte hartzaileagoak praxi maskulino hegemoniko lehiakorragoen aldean.

Laburbilduz, argi dago alkatea emakumezkoa izateak ez duela inola ere ziurtatzen feministagoa eta parekideagoa izango denik legegintzaldia ezta alderantziz ere. Horra hor lidergo femenino eta feministen arteko desberdintasuna, historiak berak milaka adibide eman digun lez. (Esteban, 2016). Nolanahi ere, gaur egun emakumeen parte hartzea bultzatzeko beharra, erabakitze postu eta prozesu orotan ukazina da, emakumeak historikoki espazio pribatura mugatu zaiolako.

Ikerketa honetan, tendentzia orokorrik dagoen ala ez aztertu nahi da aldagai hauei dagokionez. 10./11./12. Tauletan laugarren zutabearen agertzen da datu hau, urteka banatuta. Ikusten denez, kolore morez daude emakumezkoak (E) izan diren alkatetzak (azken zutabearen, urtez urte) eta urte berean gobernuan egon den alderdia (hirugarren zutabea, urtez- urte ere). Bi aldagaien artean korrelazioa egon den ala ez ikustea da asmoa.

Alkatetzaren alderdia eta sexua aztertu ostean, hauen arteko korrelazioa ezeztatzen da. Izan ere emakumezkoak izan diren alkatetzatan, jarrera pasiboak egon dira berdintasunean, bai eta jarrera oso aktiboak ere. Alderantziz berdina gertatzen da, gizonetzkoak egon diren udalerrri jarrera pasibo zein aktiboak nabarmendu direlarik. Gainera, alderdi politikoen erkatuz gero, ez dira gailendu joera nagusirik. Beste modu batean esanda, alkatetzan emakumezkoak izan diren kasuetan, ez da beti alderdi berbera errepikatu, ezta alderantziz ere. Hala eta guztiz ere, azpimarratu beharra dago nola ikuskatzen den hemen, oraindik ere emakumeak lan postu gorenetera iristeko duen zailtasunak. Hots, argi eta garbi ikusten da ia urtero eta behin eta berriz, udal handi zein ertainetan gizonetzkoak diren alkatetzara iristen direnak. Araban, emakumezkoak %16a izan dira kasu praktiko honetan; Gipuzkoan, %26a eta azkenik Bizkaian %16,16a.

Bukatzeko, hirugarren eta laugarren hipotesiak baieztatu egiten dira. Ikerketa honetan, Toki Administrazioaren buruan dagoen alderdi politikoa ezkerrekoak edo eskuinekoa den ez du azaltzen berdintasun politiken aktibotasun maila. Bestetik, alkatearen sexuak ez du eragiten udal batek berdintasun politiketan duen aktibotasunean.

3. Emakunderen diru laguntza

Aurretik aztertu dugun menpekotasun ekonomikoa dela eta, Gobernu Lokalek ez dute behar bezalako jarduerak garatuko laguntza ekonomikorik gabe. Hipotesietan aipatu dudana bezala, behar ekonomikoa asetuta izan beharko dute udalerriek berdintasunean lan egiteko, zoritxarrez udalen *agenda settingean* ez delako lehentasun politikoetako bat. Gainera, BP askok ez daukate aurrekontu propiorik eta honek hauek martxan jartzea zailtzen du. Honengatik, Emakunderen diru laguntzen azterketa bat egin da, jakiteko hauek eragina izan duten ala ez Berdintasun Politikak aurrera eramatean.

EAEko 4/2005eko Legearen 9.artikuluaren arabera, Emakunde- Emakumearen Euskal Institutua (EEEI), emakume eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu, aholkatu, planifikatu eta ebaluatu behar duen instituzioa da. Honez gain, diru – laguntzak banatzen ditu urtero. 2000.urteko diru laguntzak, ekintza positiborako udal planak onartuta dituzten EAEko udalei zuzendu ziren. 2005eko legeaz geroztik ordea, diru – laguntzaren objektua aldatuz joan da. Diagnostiko eta planak ez dituzten eta egiteko asmoa duten udalerriei zuzentzen hasi ziren diru laguntzak. Memoretan⁷ agertzen denez, berdintasunari buruzko diagnostikoak eta berdintasunerako planak sortzeko eta egokitzeko behar den laguntza teknikoa ahalbidetzeko banatu ziren laguntza hauek, 2005az geroztik. Aipatu beharra dago, 2014.urtean ez zela diru laguntzarik egon. Hala ohartarazi zuten bertako langileek, informazio eske bidali zen korreoaren erantzunean (ikus 4.eranskina).

Aurretik azaldu den menpekotasun ekonomikoa dela eta, jarraian diru laguntza jaso duten udalen eta berdintasun politiketan oso aktiboak diren toki administrazioen arteko harremana ikertu nahi da. Beheko taulan agertzen da zenbat aldiz jaso duten udalerrri bakoitzak laguntza hau epealdi honetan.

5.taula: Emakunderen diru laguntzen banaketa 2010-2015.epealdian

DIRU LAGUNTZA KOPURUA (2010-2015 urteetan)	UDALERRI ZERRENDA
0	Agurain, Deba, Hondarribia, Lazkao, Legazpi, Mutriku, Zumarraga, Derio, Etxebarri, Trapagaran,
1	Amorebieta- Etxano, Astigarraga, Beasain, Galdakao, Gorniz, Lasarte- Oria, Oiartzun, Orío, Oñati, Pasaia, Sopela, Urnieta, Billabona
2	Gueñes, Errenteria, Hernani, Lekeitio, Ortuella, Sestao, Usurbil, Urduliz, Urretxu, Zarautz
3	Abanto- Zierbena, Andoain, Azkoitia, Bergara, Durango, Elgoibar, Leioa, Lezo, Zumaia
4	Bermeo, Berango, Gasteiz
5	Aretxabaleta, Basauri, Balmaseda, Erandio, Irun
6	Arrigorriaga, Azpeitia, Donostia, Ordizia, Portugalete, Zalla
7	Abadiño, Amurrio, Arrasate, Barakaldo, Elorrio, Mungia, Muskiz
8	Laudio, Tolosa
9	Gernika- Lumo, Santurtzi
10/12	Eibar, Ermua, Bilbo, Getxo, Ondarroa

Iturria: lanketa propioa, Emakunderen memorietatik abiatuta.

10./11./12. Taulei erreparatuz gero, Agurainek ez du behin ere ez jaso laguntzarik Emakundetik. Kasu berbera errepikatzen da Deban, Hondarribian, Lazkaon, Legazpin, Mutrikun, Zumarragan, Derion, Etxebarrin edota Trapagaranen. Aipatu beharra dago, guzti hauek udalerri ertainak (“E”) direla. Hemen beraz, korrelazio bat ikusten da. Hemendik beste muturra erreparatuz gero, 9 aldiz baino gehiago laguntza jaso duten udalerriak hain zuzen ere, udalerri handiak gehiago dira, ertainak baino. Hots, udalerri handiak 9tik gorako diru laguntzak izan dituztenak Santurtzi, Getxo, Bilbo eta Eibar izan dira. Alderantziz, udalerri ertainak 9tik gorako diru laguntzak izan dituztenak Gernika-Lumo eta Ondarroa izan dira. Bestalde, lurralde historiko bakoitzari erreparatuz gero, laguntza gehien jaso duten udalerriak Araban Amurrio eta Laudio izan dira. Gasteizek soilik lau aldiz jaso du eta Agurainek behin ere ez, aurretik esan bezala. Azken kasu honetan ikusten denez, udalerria “nahiko aktiboa” izan da eta ez da kasualitatea beraz, laguntzarik izan ez duen udalerri bakarra dela baita honela kalifikatu dena lehen fasean; beste guztiak “aktiboak” izan direlarik eta diru laguntzak zortzi (Laudio) edo zazpi (Amurrio) aldiz jaso dutelarik.

Jarraitzeko, Gipuzkoan, laguntza gehien (6 edo gehiago) jaso duten udalerriak Arrasate, Azpeitia, Donostia, Eibar, Ordizia eta Tolosa izan dira. Halere gehienak 6 aldiz baino gutxiagotan laguntza jaso dutenak gehiengoak dira: Billabona, Urnieta, Pasaia, Orio, Lasarte, Irun, Elgoibar ... Kasu honetan, diru laguntzak bost aldiz edo gehiagotan jaso duten udalerriak eta udalerrri aktiboen artean harreman bat ikusten da: Arrasate, Donostia, Eibar, Irun, Tolosa. Aldiz Zarautz “aktibo” bezala izendatu den arren, soilik bi diru laguntza eskatu ditu hamabost urteetan. Elgoibarko kasuan ere antzekoa gertatzen da. Bestalde, udalerrri “nahiko aktiboek” ez dute tendentzia bera errepikatzen. Esaterako Zumaiak hiru aldiz jaso ditu laguntzak eta Azpeitiak ordea sei aldiz.

Bizkaiari dagokionez, diru laguntza gehien (6 edo gehiago) jaso duten udalerriak Abadiño, Arrigorriaga, Barakaldo, Bilbo, Elorrio, Ermua, Gernika-Lumo, Getxo, Mungia, Muskiz, Ondarroa, Portugalete, Santurtzi, eta Zalla izan dira. Beraz, Gipuzkoarekin erkatuz gero, proportzionalki Bizkaiari gehiago banatu dira diru laguntza hauek, Gipuzkoako udalerrietan baino. Zerrendatutako udalerrri hauek, gehienak “aktiboak” izan dira berdintasun politiketan. Hala nola Barakaldo, Arrigorriaga, Getxo, Ermua, Elorrio, Ondarroa, Portugalete eta abar. Hemen beraz korrelazio bat ikusi daiteke, diru laguntza gehien jaso duten udalerrri bizkaitarren artean eta udalerrri aktiboenak izan direnen artean lurralde historiko honetan. Gipuzkoan baino argiago ikusten da harreman hau. Bestetik, Bermeok genero berdintasun politiketan jarrera pasiboa izan du, baina beste lurralde “nahiko aktiboak” baino diru laguntza gehiago izan ditu, hala nola, Derio edo Etxebarri baino diru laguntza gehiagorekin (lau aldiz jaso du). Politiketan nahiko aktiboak izan duten udal gehienek lau aldiz baino gutxiagotan jaso dute laguntza.

Amaitzeko, joera nahiko nabarmen bat islatzen da, zeinak frogatzen duen diru laguntzak jaso duten udalak berdintasunean lan gehiago egin dutela. Laburbilduz, azken hipotesia baieztatu egin daiteke. Hau da, berdintasun politiketan aktiboak izan diren toki administrazioak Emakunderen diru-laguntzak jaso dituzte, eta alderantziz, pasiboak izan diren udalak, ez dute diru laguntzarik jaso, edo maiztasun gutxiagorekin jaso dute.

6. IKERKTAREN ONDORIOAK

Ikerketarekin amaitzeko, planteatutako hipotesiak egiaztatuko dira. Lehenengo hipotesiaren arabera, udalerrien tamainak ez du azaltzen aktibotasun maila. Kasu honetan, hipotesia negatiboa edo nuloa da. Izan ere, argi eta garbi ez dagoen arren desberdintasuna, tankera bat sumatu da ikerketan, non udalerrri handiek aktiboagoak izateko joera duten. Udal txikienetan, zailtasun gehiago nabarmendu da berdintasun politikak aurrera eramaten, baliabide pertsonal eta ekonomik faltagatik. Bestalde, udalerrri handienek, baita erkidegoko hiru hiriburuek ere jarrera aktiboa erakutsi dute -salbuespenak egon arren- tokiko politika hauetan. Maila administratibo txikia izanik, udalerrri txikienek menpekotasun gehiago erakutsi dute eta ondorioz jarrera pasiboagoak. Halere, esan bezala bestelako programak egin dira udalerrri txikientzat zuzenduta daudenak.

Bigarrenik, tokiko administrazioaren buruan dagoen alderdi politikoa ezkerrekoa edo eskuinekoa izateak, ez du azaltzen aktibotasun maila. Izan ere, udalerrri aktiboak ez dira gailendu alderdi politiko baten gobernupean, ezta udalerrri pasiboak ere. Beraz, kasu honetan hipotesia egiazkoa da. kasu bera errepikatu da alkatearen sexua aztertzean. Alkatearen sexuak ez du eragin EAeko udaletan berdintasun politiketan aktibotasun mailan; izan ere, udalerrri aktiboek ez dute izan emakumezkoak alkatetzan %100ean, ezta alderantziz ere. Azpimarratu den bezalaxe, legegintzaldi gehienetan gizonezkoak izan dira alkate, eta gizonezkoen alkatetzapean egon diren udaletan ez da tendentzia finkorik nabarmendu. Hirugarren hipotesia beraz egiaztatu ahal izan da ikerketa honetan.

Azkeneko hipotesiari dagokionez, berdintasun politiketan oso aktiboak izan diren toki administrazioek, Emakunderen diru- laguntzak jasotzen dutela baieztatzen zen. Hipotesi hau, ondorioz, egiazkoa dela egiaztatu ahal izan da. kontuan izan behar da diru laguntzarik jaso ez duten udal gehienak jarrera pasiboa izan dutela. Aurretik aztertu den EAeko udalen menpekotasun ekonomikoa dela eta, udalek ez dute berdintasun politikak agenda politikoan jarri, diru – laguntzarik gabe. Udaletan dinamika positibo hauek garatzeko, diru laguntzak behar dituzte, azken urteetan udalak jasaten ari diren prekarizazio egoera lausotuz.

Bukatzeko, kontuan izan behar da emaitza hauek orokorrak direla eta udalez – udal behar eta baliabideak partikularrak ez direla bertan zehatz- mehatz agertzen, hau ezinezkoa izango litzatekeelako. Hala eta guztiz ere, lan honek irudi orokor bat ematen digu, berdintasun politika lokalak nola jorratu diren azalduz. Ikerketan zehar ondorioztatu denez, egoera nahiko positiboa izan da epealdi horretan, udalerrri hauetan. Izan ere udalerrri gehienek berdintasunerako politikak aurrera eraman dituzte eta honetarako beharrezko baliabide pertsonal eta teknikoak martxan jarri dituzte, berdintasun teknikari eta planen bitartez. BPek, gainera, aipatu den bezala, derrigorrezkotasun kutsua ematen die berdintasun politikei, hau derrigorrez betebeharreko arauen multzoa bihurtzen delarik, tokiko administrazio osoa zeharkatuz.

Azkenean, Administrazio publikoek genero- ikuspegitik egin beharreko aurrera- pausu eta estrategiak sortu behar dituzte, eta honetarako analisi eta ebaluazio etengabeak ezinbestekoak izango dira. Udalek, desentralizazio maila altuko berdintasun politikak aurrera eramateko gaitasuna erakutsi dute. Halere, beraien menpekotasun ekonomikoa dela eta politika desentralizatu hauek garatzeko diru laguntzen beharra agerian geratu da. Gehienetan, ezinbestekoak izan dira berdintasun politiken garapen baikorra izan denetan.

7. BIBLIOGRAFIA

LEGEDIA

- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, "Ley Reguladora de Bases del Régimen Local"
- Martxoaren 22ko 3/2000 Gizon eta Emakumeen berdintasunerako Lege Organikoa

WEB ORRIALDEAK

- Emakunde. Memoriak:
<https://labur.eus/PwhGp> (2017ko abuztuaren 20an kontsultatua).
- Eudel. Berdinsarea:
<https://labur.eus/Gi6KU> (2017ko abuztuaren 31an kontsultatua).
- Eustat. Euskal Estatistika Erakundea:
<https://labur.eus/ZDD1J> (2017ko abuztuaren 20an kontsultatua).
- Gobierno de España. Consulta de resultados electorales:
<https://labur.eus/BBJuf> (2017ko uztailaren 20an kontsultatua).

LIBURUAK

- Alonso Álvarez, A. (2015). *El mainstreaming de género en España*. Valentzia: Tirant Lo Blanch.
- Emakunde- Emakumearen Euskal Institutua (2011). *EAE n berdintasun politikek sortutako kapital sozialaren azterketa. III. Liburukia*. Gasteiz: Emakunde.
- Esteban Galarza, ML. (2017). *Feminismoa eta politikaren eraldaketak II. Liburukia*. Zarautz: Susa.
- Juaristi Larrinaga, P. *Gizarte ikerketarako teknikak: teoria eta adibideak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Martínez Hernández, E. eta Novo Arbona, A. (2002). "La política autonómica para la igualdad entre mujeres y hombres: un análisis desde las relaciones intergubernamentales", in Grau, M. eta Mateos, A. (2002). *Análisis de políticas públicas en España: Enfoque y casos*. Valentzia: Tirant Lo Blanch, 447-483.
- Pérez Castaños, S. (2014). *Autonomía y poder en el nivel local vasco durante la crisis económica (2009- 2012)*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

ALDIZKARI ARTIKULU EDO ALDIZKAKO ARGITALPENAK

- Alfama Guillén, E. eta Alonso Álvarez, A. (2015). "Las políticas de Género en la administración pública: una introducción". *Personak eta Antolakunde Publikoak kudeatzeko Euskal Aldizkaria*, 8, 24-41.
- Alonso Álvarez, A. (2010). "Las políticas de igualdad en España: construyendo el liderazgo del nivel subnacional". *Administración & Desarrollo*, 38 (52), 57-69.
- Bouzas Lorenzo, R. eta Otero Hermida, P. (2012). "Estructura, Recursos y desarrollo de las políticas de igualdad en el ámbito local". *Revista de Estudios Políticos*, 158, 139-163.
- Lombardo, E. (2002). "Políticas de igualdad de género en los Ayuntamientos de Barcelona: origen, características y retos para el futuro". *Gestión y Análisis de Políticas Públicas*, 25, 79-93.

- Pérez Castaños, S. (2014). “La dependencia económica local. Un estudio de los Entes Municipales de la Comunidad Autónoma del País Vasco”. *R.V.A.P.*, 98, 253-289.

INTERNETEKO ARTIKULUAK

- Celis K.; Childs, S.; Kantola J. eta Krook ML. (2008), “Rethinking women’s substantive representation”. *Taylor and francis online*, 2007-07-12. Sarean: <https://labur.eus/S38CM> (2017ko abuztuaren 26n kontsultatua).
- CEMR. (2006), “European charter for equality of women and men in local life”. *CCRE/CEMR*, 2006-5. Sarean: <https://labur.eus/hK3qC> (2017ko abuztuaren 31an kontsultatua).
- Emakunde. (2011), “Cifras sobre la situación de mujeres y hombres en Euskadi 2011”. *Emakunde*. Sarean: <https://labur.eus/D5f6i> (2017ko abuztuaren 6an kontsultatua).
- Montero, J. (2016), “Feminizar la política”. *Viento sur*, 2016-12-03. Sarean: <https://labur.eus/fmhRM> (2017ko abuztuaren 15ean kontsultatua).

8. TAULA, GRAFIKO ETA IRUDIEN AURKIBIDEA

Taulak:

1. taula: **EAEko administrazio lokalen diru- sarrerak (2009tik 2012ra)** (13.orr)
2. taula: **Mainstreaminga** garatzeko tresnen laburpena (17.orr)
3. taula: **Udaletako berdintasun politikan aktibotasun graduak neurtzeko irizpideak** (22.orr)
4. taula: **EAEko udalerrien zerrenda Berdintasunean aktibotasun mailaren arabera sailkatuta** (29.orr)
5. taula: **Emakunderen diru laguntzen banaketa 2010-2015.epealdian** (36.orr)
6. taula: **EEEIren laguntza izan duten udalerrri guztien zerrenda EAEko udalerrri guztiek (2000-2015)** (44.orr)
7. taula: **Arabako udalerrien aktibotasuna berdintasunean** (48.orr)
8. taula: **Gipuzkoako udalerrien aktibotasuna berdintasunean** (49.orr)
9. taula: **Bizkaiko udalerrien aktibotasuna berdintasunean** (50.orr)
10. taula: **Arabako udalerrien aktibotasuna ulertzeko aldagaien azterketa** (51.orr)
11. taula: **Gipuzkoako udalerrien aktibotasuna ulertzeko aldagaien azterketa** (52.orr)
12. taula: **Bizkaiko udalerrien aktibotasuna ulertzeko aldagaien azterketa**(53.orr)

Grafikoak:

1. grafikoa: **Tokiko administrazioen bakoitzaren egoera berdintasun politikan** (18.orr)
2. grafikoa: **EAEko hiriburuen Berdintasun Atalen kokapena** (20.orr)
3. grafikoa: **EAEko udalen BP-n ibilbidea, lurralde historiko bakoitzean** (20.orr)
4. grafikoa: **Berdintasun Teknikarien sailkapenaren arabeko grafikoa** (24.orr)
5. grafikoa: **EAEko udalen Berdintasun Planen (BP) arabeko sailkapena** (27.orr)
6. grafikoa: **EAEko udalerriek berdintasun politikan izan duten jarrera 2010-2015 bitartean** (30.orr)
7. grafikoa: **5.000 biztanletik gorako EEEIren diru laguntzak (2010-2015) grafikoki**

Irudiak:

1. irudia: **Berdinsarean (Eudel) parte diren udalerrien mapa** (47.orr)

9. OHARRAK

1: Jatorrizkoan euskaraz ez dauden aipu, taula, grafiko, irudi eta datu guztiak lan osoan zehar itzulita agertuko dira.

2: <https://labur.eus/wq4S9> da *Berdinsarearen* web-gunea. (2017ko irailaren lehen azken kontsulta).

3: <https://labur.eus/hK3qC> aurkitzen da gutuna. (2017ko irailaren lehen azken kontsulta).

4: Berdintasun Plan hau Arabako Foru Aldundiaren laguntza pean egin da eta proiektu hau Berdintasunaren aldeko sentsibilizazio kanpaina bezala izendatu dute, zeinak Aguraingo Koadrilan dagoen desberdintasun egoerari buruzko diagnostikoa egin duen.

5: Hauteskunde emaitzak azaltzen diren web orrialdea: <https://labur.eus/BBJuf>. (2017ko irailaren lehen azken kontsulta).

6: <https://labur.eus/7h9kW> web orrialdean agertzen dira Emakunderen txosten hauek. (2017ko irailaren lehen azken kontsulta).

7: <https://labur.eus/PwhGp> web orrialdean agertzen dira Emakundek urtero egiten dituen memoriak. (2017ko irailaren lehen azken kontsulta).

10. ERANSKINAK

1.eranskina: 2015eko urtarrileko txostenean EAeko ondorengo 33 udalerriek parte hartzen dute.

EUROPEAN CHARTER FOR EQUALITY OF WOMEN AND MEN IN LOCAL LIFE

16/01/2015

1. Abadiño
2. Abanto-Zierbena
3. Amurrio
4. Arrigorriaga
5. Balmaseda
6. Barakaldo
7. Barrika
8. Basauri
9. Berango
10. Bilbo
11. Burgelu
12. Busturia
13. Donostia
14. Elorrio
15. Erandio Elizate
16. Ermua
17. Errenteria
18. Galdakao
19. Gernika Lumo
20. Getxo
21. Gordexola
22. Laudio
23. Legorreta
24. Leioa
25. Mungia
26. Muskiz
27. Ondarru
28. Sestao
29. Sopelana
30. Tolosa
31. Ugao- Miraballes
32. Urnieta
33. Zalla

Iturria:lanketa propioa <https://labur.eus/hK3qC> –ko datuetatik abiatuta (2017ko abuztuaren 20an kontsultatua).

2.eranskina :


6.taula: EEEIren laguntza izan duten udalerrri guztien zerrenda EAeko udalerrri guztiek (2000-2015)

LAGUNTZA IZAN DUTEN UDALERRIAK(2000-2015)	
1	Amorebieta Etxano , Alonsotegi, Arantzazu , Ayala, Arrankudiaga, Arratia, Ataun, Astigarraga, Basauri, Barrundia, Barrika, Bideberri, Beasain, Bedia, Berriatua, Busturia, Dima, Debegesa, Enkarterri, Galdakao, Gorkiz, Gueñes, Itsasondo, Ibarra, Iruña de Oca, Lazkao, Lasarte Oria, Kanpezu, Legutio, Mendata, Muxika, Oiartzun, Ormaiztegi, Orrio, Otxandio, Oñati, Pasaia, Plentzia, Sopela, Urnieta, Billabona, Zamudio, Zigoitia, Zaldibia, Zegama, Zegama, Zestoa, Zierbena, Zuia
2	Alegria Dulantzi, Areatza, Gueñes , Asparrena, Aramaio, Erreterria, Hernani, Irura, Igorre, Larrabetzu, Lemoiz, Lemoa, Lekeitio, Markina Xemein, Mallabia, Ortuella, Sestao, Segura, Ugao- Miraballes, Usurbil, Urduliz, Urretxu, Zarautz,
3	Abanto- Zierbena , Andoain, Anoeta, Azkoitia, Bergara, Durango, Elgoibar, Gordexola, Lezo, Leioa, Soraluze, Zumaia
4	Bermeo, Berango, Burgelu, Gasteiz, Zaldibar
5	Aretxabaleta, Basauri, Balmaseda, Erandio, Irun, Orozko, Orduña
6	Arrigorriaga, Azpeitia, Donostia, Ordizia, Portugalete, Zalla
7	Abadiño, Amurrio, Arrasate, Barakaldo, Elorrio, Mungia, Muskiz
8	Berriz, Llodio, Tolosa
9	Gernika Lumo, Santurtzi
10	Eibar, Ermua, Getxo, Ondarroa
11	
12	Bilbo

Iturria: lanketa propioa Emakunderen memoriak erabiliz.

3.eranskina:

7.grafikoa: 5.000 biztanletik gorako EEEIren diru laguntzak (2010-2015) grafikoki



Iturria: lanketa propioa

4.eranskina: Emakunderi bidali zen gutuna, Lankidetzaren Arloari zuzenduta.



Maria Zendegi Zelaia
EHU/UPV Leioa- Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa Gradua

EMAKUNDE
Lankidetzaren Arloa

Lagun hori,

Maria Zendegi naiz, NAN 72840099W, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoko 4.mailako ikaslea naiz. Nire Gradu Amaierako Lanean Udalen Berdintasun Politikak aztertzen ari naiz, Ainhoa Novo da nire lanaren Zuzendaria.

Landa lanean, adierazle gisa Udalek Emakundetik jasotzen duten diru-laguntza aztertzen dut, honen inpaktua neurtzeko asmoz. Nire azterketaren epealdia, 2000-2015 izango litzateke. Emakunderen memoriak jarraituz, urte gehienetan diru-laguntza jaso duten Udalen zerrenda lortu dut, baina behean zerrendatzen diren urteetako memoriak, ez dute datu hau jasotzen.

- 2000
- 2001
- 2002
- 2007
- 2014

Beraz nire eskaera ondorengoa da, goian zehaztutako urteetako udalei zuzenduriko diru-laguntza, zein udalek eta zenbateko izan den zehaztea. Informazio hau non topa dezakedan, edo nori eskatu diezaiokedan adieraziz gero asko eskertuko nuke.

Besterik gabe, mila esker aldeztatik.

Agur t'ardi,

Oñatin, 2017ko otsailaren 20ean
Maria Zendegi Zelaia

5.eranskina: *Berdinsareko* (Eudel) kideak.

1.irudia: Berdinsarean (Eudel) parte diren udalerrien mapa



Iturria: <https://labur.eus/wq4S9> (2017ko maiatzaren 5ean kontsultatua)

6.eranskina: Arabako 5.000 biztanletik gorako udalerrien taula da. Hauen udaletan berdintasun politiken esparruan emandako aktibotasuna neurtzeko 2010-2015eko epealdian.

7.taula: Arabako udalerrien aktibotasuna berdintasunean

ARABAKO UDALERRIAK	BERDINTASUN TEKNIKARIA	BERDINTASUN UNITATEA	BERDINTASUN PLANA	EUDEL	EUROPAKO GUTUNA	EMAITZA
Agurain	M	M	M			NAHIKO
Amurrio	Bai	Bai	4	X	X	AKTIBOA
Laudio	Bai	Bai	3	X	X	AKTIBOA
Gasteiz	Bai	Bai	3	X		AKTIBOA

Iturria: lanketa propioa

7.eranskina: Gipuzkoako 5.000 biztanletik gorako udalerrien taula da. Hauen udaletan berdintasun politiken esparruan emandako aktibotasuna neurtzeko 2010-2015eko epealdian.

8.taula: Gipuzkoako udalerrien aktibotasuna berdintasunean

GIPUZKOAKO UDALERRIAK	BERDINTASUN TEKNIKARIA	BERDINTASUN SAILA	BERDINTASUN PLANA	EUDEL	EUROPAKO GUTUNA	EMAITZA
Andoain	Bai	Bai	2	X		NAHIKO
Aretxabaleta	Bai	Bai	1			NAHIKO
Arrasate	Bai	Bai	-	X		AKTIBOA
Astigarraga	Bai	Bai	2			NAHIKO
Azkoitia	Bai	Bai	1	X		NAHIKO
Azpeitia	Bai	Bai	1	X		NAHIKO
Beasain	Bai	Bai	1			NAHIKO
Bergara	Bai	Bai	1			NAHIKO
Deba	Bai	Bai	1	X		NAHIKO
Donostia	Bai	Bai	3	X	X	AKTIBOA
Eibar	Bai	Bai	4	X		AKTIBOA
Elgoibar	Bai	Bai	3	X		AKTIBOA
Errenteria	Bai	Bai	2		X	NAHIKO
Hernani	Bai	Bai	2	X		NAHIKO
Hondarribia	M	Ez	M			PASIBOA
Irun	Bai	Bai	3			AKTIBOA
Lasarte-Oria	Bai	Bai	1			NAHIKO
Lazkao	Ez	Ez	0			PASIBOA
Legazpi	Bai	Bai	2	X		NAHIKO
Lezo	Bai	Bai	2			NAHIKO
Mutriku	Ez	Ez	1	X		PASIBOA
Oiartzun	Ez	Bai	1			NAHIKO
Oñati	Bai	Bai	1	X		NAHIKO
Ordizia	Bai	Bai	2	X		NAHIKO
Orio	Bai	Ez	1			PASIBOA
Pasaia	Bai	Bai	1			NAHIKO
Tolosa	Bai	Bai	3	X	X	AKTIBOA
Urnietea	Ez	Bai	1		X	PASIBOA
Urretxu	M	M	M	X		NAHIKO
Usurbil	Bai	Bai	2	X		NAHIKO
Billabona	Ez	Ez	Ez			PASIBOA
Zarautz	Bai	Bai	3	X		AKTIBOA
Zumaia	Bai	Bai	2			NAHIKO
Zumarraga	M	M	1	X		PASIBOA

Iturria: lanketa propioa

8.eranskina: Bizkaiko 5.000 biztanletik gorako udalerrien taula da. Hauen udaletan berdintasun politiken esparruan emandako aktibotasuna neurtzeko 2010-2015eko epealdian.

9.taula: Bizkaiko udalerrien aktibotasuna berdintasunean

BIZKAIKO UDALERRIAK	BERDINTASUN TEKNIKARIA	BERDINTASUN SAILA	BERDINTASUN PLANA	EUDEL	EUROPAKO GUTUNA	EMAITZA
Abadiño	Bai	Bai	2	X	X	NAHIKO
Abanto Zierbena	Bai	Bai	3	X	X	AKTIBOA
Amorebieta-Etxano	Bai	Bai	2	X		NAHIKO
Arrigorriaga	Bai	Bai	3	X	X	AKTIBOA
Balmaseda	Bai	Bai	3	X	X	AKTIBOA
Barakaldo	Bai	Bai	3	X	X	AKTIBOA
Basauri	Bai	Bai	1	X	X	NAHIKO
Berango	Bai	Bai	2	X	X	NAHIKO
Bermeo	M	Ez	M			PASIBOA
Bilbo	Bai	Bai	4	X	X	AKTIBOA
Derio	M	M	1	X		NAHIKO
Durango	Bai	Bai	2	X		NAHIKO
Elorrio	Bai	Bai	4	X	X	AKTIBOA
Erandio	Bai	Bai	3	X	X	AKTIBOA
Ermua	Bai	Bai	3	X	X	AKTIBOA
Etxebarri	Ez	Bai	1			NAHIKO
Galdakao	Bai	Bai	2	X	X	NAHIKO
Gernika-Lumo	Bai	Bai	3	X	X	AKTIBOA
Getxo	Bai	Bai	4	X	X	AKTIBOA
Gorliz	M	Bai	M	X		NAHIKO
Güeñes	M	M	3	X		NAHIKO
Leioa	Bai	Bai	3	X	X	NAHIKO
Lekeitio	Bai	Bai	3	X		NAHIKO
Mungia	Bai	Bai	3	X	X	AKTIBOA
Muskiz	Bai	Bai	3	X	X	AKTIBOA
Ondarroa	Bai	Bai	3	X	X	AKTIBOA
Ortuella	Bai	Bai	2	X		NAHIKO
Portugalete	Bai	Bai	4	X		AKTIBOA
Santurtzi	Ez	Bai	4	X		AKTIBOA
Sestao	Bai	Bai	3	X	X	AKTIBOA
Sopela	M	M	M	X	X	NAHIKO
Trapagaran	Ez	Bai	2			PASIBOA
Zalla	Bai	Bai	4	X	X	AKTIBOA

Iturria: lanketa propioa

9.eranskina: Arabako 5.000 biztanletik gorako udalerrien taula da. Hauen udaletan berdintasun politiken esparruan emandako aktibotasuna (2010-2015) ulertzeko aldagaien azterketa bat egiten da.

10.taula: Arabako udalerrien aktibotasuna ulertzeko aldagaien azterketa

ARABAKO UDALERRIAK	UDALERRIAREN TAMAINA	DIRU LAGUNTZA	ALDERDI POLITIKOA			ALKATETZAREN SEXUA		
			2003	2007	2011	2003	2007	2011
Agurain	E	0	EA/EAJ	AGA	BILDU	G	G	E
Amurrio	E	7	EAJ	EA/EAJ	EAJ	G	G	E
Laudio	E	8	EAJ	EAJ	BILDU	G	G	G
Gasteiz	H	4	PP	PSE	PP	G	G	G

Iturria: lanketa propioa

10.eranskina: Gipuzkoako 5.000 biztanletik gorako udalerrien taula da. Hauen udaletan berdintasun politiken esparruan emandako aktibotasuna (2010-2015) ulertzeko aldagaien azterketa bat egiten da.

11.taula: Gipuzkoako udalerrien aktibotasuna ulertzeko aldagaien azterketa

GIPUZKOAKO UDALERRIAK	UDALERRIAREN TAMAINA	DIRU LAGUNTZA	ALDERDI POLITIKOA			ALKATETZAREN SEXUA		
			2003	2007	2011	2003	2007	2011
Andoain	E	3	PSE	PSE	BILDU	G	G	E
Aretxabaleta	E	5	EA/EAJ	Aralar	BILDU	G	G	E
Arrasate	H	7	EA/EAJ	EAE	BILDU	G	E	G
Astigarraga	E	1	EAJ	EA	EA	E	G	G
Azkoitia	E	3	EAJ	EAJ	BILDU	G	G	G
Azpeitia	E	6	EAJ	EAJ	BILDU	G	G	G
Beasain	E	1	EAJ	EAJ	BILDU	G	G	G
Bergara	E	3	EAJ	EA	BILDU	G	E	G
Deba	E	0	EAJ	EA	ID	G	G	E
Donostia	H	6	PSE	PSE	BILDU	G	G	G
Eibar	H	10/12	PSE	PSE	PSE	G	G	G
Elgoibar	E	3	EAJ	EAJ	EAJ	E	G	G
Errenteria	H	2	PSE	PSE	BILDU	G	G	G
Hernani	H	2	EAJ	EAE	BILDU	G	E	G
Hondarribia	E	0	EA/EAJ	EAJ	EAJ	G	G	E
Irun	H	5	PSE	PSE	PSE	G	G	G
Lasarte-Oria	E	1	PSE	PSE	PSE	E	E+G	E
Lazkao	E	0	EAJ	EAJ	EA/ALT.	G	G	G
Legazpi	E	0	EAJ	ANV/EAE	BILDU	G	G	G
Lezo	E	3	EAJ	EAE	BILDU	G	G	E
Mutriku	E	0	EAJ	EAJ	BILDU	G	G	G
Oiartzun	E	1	EA	EAE/HB	BILDU	G	G	E
Oñati	E	1	EAJ	EAJ	BILDU	G	E	G
Ordizia	E	6	EAJ	EAJ	EA/ALT.	E	G	G
Orio	E	1	EAJ	EAJ	EAJ	E	G	G
Pasaia	E	1	PSE	EAE	BILDU	E	E	E
Tolosa	E	8	EAJ	EAJ	BILDU	G	G	G
Urnietta	E	1	EAJ	Indp.	UDA	G	G	G
Urretxu	E	2	EAJ	EAE	BILDU	G	G	E
Usurbil	E	2	EA/EAJ	EAE	BILDU	G	G	E
Billabona	E	1	EA/EAJ	EAE	BILDU	E	E	G
Zarautz	H	2	EA	EA	BILDU	E	E	G
Zumaia	E	3	EA/EAJ	EAJ	BILDU	E	G	G
Zumarraga	E	0	PSE	PSE	PSE	G	G	G

Iturria: lanketa propioa

11.eranskina: Bizkaiko 5.000 biztanletik gorako udalerrien taula da. Hauen udaletan berdintasun politiken esparruan emandako aktibotasuna (2010-2015) ulertzeko aldagaien azterketa bat egiten da.

12.taula: Bizkaiko udalerrien aktibotasuna ulertzeko aldagaien azterketa

BIZKAIKO UDALERRIAK	UDALERRIAREN TAMAINA	DIRU LAGUNTZA	ALDERDI POLITIKOA			ALKATETZAREN SEXUA		
			2003	2007	2011	2003	2007	2011
Abadiño	E	7	EAJ	AI	AI	G	G	G
Abanto Zierbena	E	3	EAJ	EAJ	EAJ	G	G	E
Amorebieta-Etxano	E	1	EAJ	EAJ	EAJ	G	G	G
Arrigorriaga	E	6	EAJ	EAJ	EAJ	G	G	G
Balmaseda	E	5	EAJ	EAJ	EAJ	G	G	G
Barakaldo	H	7	PSE	PSE	PSE	G	G	G
Basauri	H	5	EAJ	PSE	EAJ	G	E	G
Berango	E	4	EAJ	EAJ	EAJ	E	E	E
Bermeo	E	4	EA	EAJ	BILDU	G	G	E
Bilbo	H	10/12	EAJ	EAJ	EAJ	G	G	G
Derio	E	0	EAJ	EAJ	EAJ	G	G	G
Durango	H	3	EAJ	EAJ	EAJ	G	G	E
Elorrio	E	7	EAJ	EAE	EAJ	G	G	E
Erandio	H	5	EAJ	EAJ	EAJ	G	G	G
Ermua	E	10/12	PSE	PSE	PSE	G	G	G
Etxebarri	E	0	LVP	LVP	LVP	G	G	G
Galdakao	H	1	EAJ	EAJ	EAJ	G	G	G
Gernika-Lumo	E	9	EAJ	EA	BILDU	G	G	G
Getxo	H	10/12	EAJ	EAJ	EAJ	G	G	G
Gorliz	E	1	EA/EAJ	EAJ	EAJ	G	E	E
Güeñes	E	2	EAJ	EAJ	EAJ	G	G	G
Leioa	H	3	EA/EAJ	EAJ	EAJ	G	G	E
Lekeitio	E	2	EAJ	EAJ	BILDU	G	G	E
Mungia	E	7	EAJ	EAJ	EAJ	G	E	E
Muskiz	E	7	EAJ	EAJ	EAJ	G	G	G
Ondarroa	E	10/12	EA/EAJ	EAJ	BILDU	G	G	E
Ortuella	E	2	EA/EAJ	EAJ	EAJ	G	G	G
Portugalete	H	6	PSE	PSE	PSE	G	G	G
Santurtzi	H	9	PSE	EAJ	EAJ	G	G	G
Sestao	H	2	EAJ	EAJ	EAJ	G	G	G
Sopela	E	1	EAJ	EAJ	BILDU	G	G	E
Trapagaran	E	0	PSE	PSE	EAJ	G	G	G
Zalla	E	6	EAJ	EAJ	ARALAR	G	G	G

Iturria: lanketa propioa